



Akta honen osagarri, bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.  
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

ff1c80c51f5bcbc8e0e191f1280899e8a9bcf0373aab46b07e18e93abf22ffae

Lotura honetan dago: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

## **TOLOSAKO UDALBATZAK 2021EKO APIRILAREN 29AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

**2021.04.29**

Tolosako Udaletxean, 2021eko apirilaren hogeita bederatzian, 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da, eta eguneko gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

### **Alkate-lehendakaria:**

Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)

### **Parte hartu duten zinegotziak:**

Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV)  
Nerea Letamendia Belloso (EAJ-PNV)  
Jose Francisco Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)  
Joseba Koldo Ormazabal Lopez (EAJ-PNV)  
Egoitz Sorozabal Iturain (EAJ-PNV)  
Xabier Balerdi Tolosa (EAJ-PNV)  
Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe (EAJ-PNV)  
Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui (EHBILDU)  
Kristina Pelaez Errazkin (EHBILDU)  
Ander Figuerido Zubiria (EHBILDU)  
Aitana Amondarain Esquisabel (EHBILDU)  
Aitzol Garcia Azurmendi (EHBILDU). 12. puntuan.  
Olatz Artola Apezteguia (EHBILDU)  
Garbiñe Marzol Ormazabal (EHBILDU)  
Xabier Martinez Quinquilla (EHBILDU)  
Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria (PSE-EE)

### **Idazkaria:**

Begoña Garmendia Vazquez

### **Jarduneko kontuhartzailea:**

Paulino Alonso Eraso



### Eguneko gai-zerrenda

1. Akta hau onartzea:  
2021eko martxoaren 25eko Ohiko Osoko Bilkurakoa (Akta elektronikoa).
2. Kontratazio jardunbidea onartzea Tolosako San Blas, Bedaio eta Aldabako udal hilerrien kudeaketa integralaren zerbitzu-kontratua arautuko duen esleipena egiteko, eta lizitazioari hasiera ematea.
3. Kontratazio jardunbidea onartzea Tolosako udalerrian arlo sozioedukatihoan eta psikosozialean esku-hartzeko zerbitzu-kontratua arautuko duen esleipena egiteko, eta lizitazioari hasiera ematea.
4. Tolosako udal eraikinak eta hiri-altzariak garbitzeko zerbitzu-kontratuaren espedientea presakotzat jotzea eta lizitazioa arautuko duen kontratazio jardunbidea onartzea, eta lizitazioari hasiera ematea.
5. Zerbitzuak eman edo udal jarduerak burutzeagatiko prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren eta bere eranskinen aldaketa onartzea.
6. Kreditu aldaketa honen berri ematea:  
2021/554 Alkatetza Dekretua, 1/2021 kreditu aldaketarako espedienteari dagokiona.
7. Iurramendi Egoitza Erakunde Autonomoaren desegitea behin betiko onartu izanaren berri ematea.
8. COVID-19aren ondoriozko konfinamendu-kasuetan, osoko bilkuretan eta gainontzeko organo kolegiatuetan tokiko ordezkarien parte-hartze telematikoa ahalbidetzeko erregelamendua behin betiko onartu izanaren berri ematea.
9. Udalbatzako kideen informazio publikoko eskubidea arautzen duen erregelamendua behin betiko onartu izanaren berri ematea.
10. Agaramundu 7ko araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren oinarri arautzaileen aldaketa behin betiko onartu izanaren berri ematea.
11. EH Bildu udal taldeak aurkeztutako mozioak, Goi tentsioko linearen proiektuari buruzkoak



12.EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako mozioa: ENBA eta ENHE nekazarien sindikatuen "Mendiko abeltzaintzaren eta otsoaren populazioaren kontrolaren aldeko mozioa".

13.Galderak eta eskaerak.

Udal idazkariak adierazi du Osoko Bilkura era erdi presentzialean egingo dela, honako modu honetan:

- Alkateak, udal talde politikoetako bozeramaileak (Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, eta Jose M. Villanueva Telleria), eta Udaleko idazkaria eta kontuhartzailea batzar aretoan daude
- Gainontzeko korporazioko kideek, zoom bidez, era telematikoa hartuko dute parte.

Udalbatzaren osoko bilkura osatzeko lege-oinarria honako hau da: COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu duen egoeraren aurrean, 11/2020 Errege Lege Dekretuak, bere Bigarren Azken Xedapenean, 7/85 Legearen 46. artikulua aldatu eta erantsitako 3. atalean xedaturikoa: «3. *En todo caso, cuando concurren situaciones excepcionales de fuerza mayor, de grave riesgo colectivo, o catástrofes públicas que impidan o dificulten de manera desproporcionada el normal funcionamiento del régimen presencial de las sesiones de los órganos colegiados de las Entidades Locales, estos podrán, apreciada la concurrencia de la situación descrita por el Alcalde o Presidente o quien válidamente les sustituya al efecto de la convocatoria de acuerdo con la normativa vigente, constituirse, celebrar sesiones y adoptar acuerdos a distancia por medios electrónicos y telemáticos, siempre que sus miembros participantes se encuentren en territorio español y quede acreditada su identidad. Asimismo, se deberá asegurar la comunicación entre ellos en tiempo real durante la sesión, disponiéndose los medios necesarios para garantizar el carácter público o secreto de las mismas según proceda legalmente en cada caso.*

*A los efectos anteriores, se consideran medios electrónicos válidos las audioconferencias, videoconferencias, u otros sistemas tecnológicos o audiovisuales que garanticen adecuadamente la seguridad tecnológica, la efectiva participación política de sus miembros, la validez del debate y votación de los acuerdos que se adopten.».*

Beraz, aipaturiko xedapenean araututakoaren arabera, udal idazkariak honako eginbide hauek egin ditu:

Lehenik.- Batzarkide guztien identitatea egiaztatu du.

Bigarrena.- Fisikoki ez dagoen batzarkide bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena egin du, Estatuko lurraldean dagoela ziurtatzeko.

Hirugarrena.- Irizpenen bozketa banan-banan egingo da, eta batzarkide bakoitzak bere botoa azalduko du.



Eta bukatzeko, batzarkideek aho batez berretsi dute Osoko Bilkura era erdi presentzialean egitea.

Ondoren, batzarkideek bilkurako gai-zerrendari heldu diote.

**1. AKTA HAU ONARTZEA:**  
**2021EKO MARTXOAREN 25EKO OHIKO OSOKO BILKURAKOA (AKTA ELEKTRONIKOA).**

Izenburuan aipatutako akta aho batez onartu dute.

**BATZORDE INFORMATIBOEN IRIZPENAK**

**2. KONTRATAZIO JARDUNBIDEA ONARTZEA TOLOSAKO SAN BLAS, BEDAIO ETA ALDABAKO UDAL HILERRIEN KUDEAKETA INTEGRALAREN ZERBITZU-KONTRATUA ARAUTUKO DUEN ESLEIPENA EGITEKO, ETA LIZITAZIOARI HASIERA EMATEA.**

**Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2021eko apirilaren 21eko irizpena**

**I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK**

Kontratuaren xedea	Tolosako San Blas, Bedaio eta Aldabako udal-hilerrien kudeaketa integralaren zerbitzu-kontratua.
Unitate sustatzailea	Hirigintza Saila
Espedientea	2021SABI0003

**II.- AURREKARIAK**

Lehena.- Tolosako Udaleko Hirigintza Saileko teknikariak 2021eko martxoaren 1ean egindako txostenean, aipatutako xedea duen zerbitzu-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, jardunbidea burutu ahal izateko, honako hauek eskatu zituen: Administrazio Baldintza Partikularren Plegua; Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua; baliabide nahiko ez



izateari buruzko txostena; kontratua justifikatzeko memoria; eta idazkariaren eta kontuhartzailearen txostenak.

Bigarrena.- 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak (SPKL hemendik aurrera), V. Kapituluaren (308. artikulutik aurrera), zerbitzu kontratuei buruzko xedapenak ematen ditu; horien artean, edukia eta limiteak, prezioa kalkulatzeko era eta kontratistaren erantzukizuna.

Hirugarrena.- Txosten berean, kontratuaren xehetasunak aipatzen zituen, beste batzuen artean: kontratuaren xedea, proiektuaren eremua, jarduketaren helburuak, kontratuaren prezioa, kontratua gauzatzeko epea eta egin beharreko lanak.

Laugarrena.- Halaber, aipatutako txostenean, SPKLren 28. artikuluan xedatutakoa betetzearren, kontratuaren egokitasuna eta beharra arrazoitzen dira. Aipatutako legeak hau zehazten du 28. artikuluan:

*Kontratuaren premia eta egokitasuna, eta efizientzia kontratazioan. 1. Sektore publikoko erakundeek beren helburu instituzionalak betetzeko eta gauzatzeko behar diren kontratuak egingo dituzte, ez besterik. Horretarako, zehatz-mehatz zehaztu behar dira egitekoa den kontratuaren bidez bete nahi diren premien izaera eta hedadura, bai eta kontratuaren objektua eta edukia premia horiei erantzuteko egokiak diren edo ez ere, prozedura ireki edo murriztuaren edo publikitatez gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatzen denean. Horren guztiaren berri jaso beharko da kontratua prestatzeko dokumentazioan, kontratua adjudikatzeko prozedurari ekin aurretik.*

### **III.- KONTRATAZIO-ESPEDIENTEA, KONTRATUAREN IZAERA ETA KAUDIMENA**

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, 116.1 artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz, esleipen-jardunbidea osatzen duten izapideak hasi baino lehen, kontratazio-espedientea osatu behar da. Espedientea, aipatutako Legearen 116.3 artikulua ezarritakoaren arabera egin da, eta 117. artikulua xedatzen duenaren arabera onartu beharko da, esleipen-jardunbideari hasiera emanez.

Espedientea aztertu ondoren, honako dokumentuok dituela egiaztatzen da:

- Obrak eta Zerbitzuetako Azpisaileko buruak egindako kontratazio-proposamena.
- Berezko baliabideak ez izatearen justifikazioa jasotzen duen txostena.
- Asmatu enpresak egindako azterketa ekonomikoa.
- Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua.
- Administrazio Baldintza Partikularren Plegua.
- Lege-txostena.



- Fiskalizazio txostena.

Kontratu honek administrazio-izaera du, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 25.1 artikulua a) atalean xedaturikoarekin bat etorrira; zerbitzu kontratua hain zuzen ere, aipatutako Legearen 17. artikuluan xedaturikoaren arabera, non hau zehazten duen:

*Zerbitzu-kontratuak objektu hau dutenak dira: jarduera bat garatuz prestazioak ematea edo obra edo horniduraz bestelako emaitza bat lortzera bideratutako prestazioak ematea; halako kontratuen artean daude, besteak beste, adjudikazioduna zerbitzuak hurrenez hurren eta prezio unitario baten truke ematera behartzen den kontratuak. Ezin dira kontratu horien objektu izan botere publikoei dagokien aginteaz baliatzea eskatzen duten zerbitzuak.*

**Bestalde, zerbitzu-kontratu honetan honako hau kontuan izan behar da:**

Lehenena.- Kontratu honetan aurreikusitako **balio zenbatetsia 415.891,92 eurokoa da**, aintzat hartuta 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 101.1.a) artikuluan xedaturikoa.

		VALOR ESTIMADO	PPTO BASE LICITACIÓN
1 año sin IVA	1 año con IVA	5 años sin IVA	5 años con IVA
83.178,38	100.645,84	415.891,92	503.229,22

Bigarrena.- Kontratazio honetan **ez da lotetan banatzea aurreikusi**, eta hori justifikatu da espedientean. Hauexek dira lotetan ez banatzeko arrazoiak: kontratuaren xedean jarduketa integrala eskatzen denez, eta kontuan hartuta kontratuaren xede diren jarduera eta lan guztiak espazio fisiko berean garatuko direla, ez da egokia hura lotetan banatzea; izan ere, kontratuaren xedean jasotako hainbat prestazio modu independentean egiteak zaildu egingo luke hura ikuspegi teknikotik behar bezala gauzatzea. Era berean, koordinazioa beharrezkoa da kontratuko hainbat prestazioren exekuzioan, eta, horiek lotetan banatuz gero, horiek gauzatzea ezinezkoa izango litzateke, edo, gutxienez, jarduketa eraginkor, garden eta osoaren printzipioekin talka egingo luke.

Hirugarrena.- Zerbitzu-kontratuak 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak (SPKL), 19. artikuluan xedatutakoaren arabera, araudi armonizatuari loturik egon daitezkeen kontratuak izan daitezke; kasu honetan, 22. artikulua xedatzen duen kontratuaren balio zenbatetsia gainditzen duenez (214.000,00 €), araudi horretara dago lotuta; beraz, **arau armonizatupeko kontratua da hau**. Horrenbestez, lizitazioaren iragarkia, **kontratatuaren profileen argitaratzeaz gain, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian ere argitaratu behar da**.

Laugarrena.- SPKLren 44.1 a) artikulua xedaturikoaren arabera, kontratazioari buruzko errekurso berezia tartekatu ahal izango da, balio zenbatetsiak 100.000,00 euroko kopurua gainditzen badu; beraz, kasu honetan atalase hori gainditzen duenez, **kontratazioari buruzko errekurso bereziaren menpe egongo da lizitazioa**. Horrenbestez, SPKLren 153. artikuluan xedatutakoa jarraituz, kontratua ezingo da

ESKUA63d0247-331a-4131-b69b-d60493052211



formalizatu adjudikazioaren jakinarazpena lizitzaileei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hasita hamabost egun balioduneko epea igaro baino lehen.

Bosgarrena.- Bestalde, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren I. tituluaren IV. Kapituluaren eta horren I. Eranskinaren 11. atalean jasotzen dira kaudimenari buruzko baldintzak, SPKlk 86., 87., eta 90. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Seigarrena.- Halaber, eta ordainagirien ordainketari dagokionez, kontuan hartu beharko da aipatu legearen 198.4 artikuluan xedaturikoa:

*4. Obra-ziurtagiriak onartu ondoren, edo ondasunak nahiz zerbitzuak kontratuan xedatutako moduan entregatu eta eman direla egiaztatzen duten agiriak eman ondoren, hogeita hamar egun izango ditu Administrazioak prezioa ordaintzeko, hargatik eragotzi gabe 210. artikuluen 4. apartatuan ezarritako epe berezia; Administrazioa prezioa ordaintzen atzeratzen bada, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak ordaindu behar dizkio kontratistari epe hori igarotakoan, Merkataritza-eragiketarako Berankortasunaren aurkako Neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen arabera. Interesak sortzeko epea abiarazteko, kontratistak bete egin behar du faktura dagokion administrazio-erregistroan garai eta modu egokian aurkezteko betebeharra, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan. Betebehar hori hogeita hamar eguneko epean bete behar du, salgaiak egiaz entregatu edo zerbitzua egiaz eman duen egunetik aurrera.*

#### **IV.- ESPEDIENTE MOTA**

SPKlk 116., 119. eta 120. artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditentak hiru eratakoak izan daitezke, hain zuzen ere, arruntak edo ohikoak, presakoak eta larrialdietakoak. Presakoak, 119. artikuluan arautzen dira honako honen arabera: “Presako izapidetzea erabili ahal izango da atzera ezineko premia daukaten kontratuen espeditentak edo interes publikoa dela-eta kontratuen adjudikazioa bizkortu beharra dutenak izapidetzeko. Horretarako, kontratazio-organoak egindako urgentzia adierazpena eduki behar du espeditentak, behar bezala arrazoitua”. Halaber, presakotzat jotzeak legean zehaztutako lehentasun-ondorioak eta epeen murrizketa dakartza.

Larrialdietakoak, aldiz, 120. artikuluan arautzen dira, ondorengoaren arabera: “Edo hondamendiak gertatu direlako edo arrisku larria sortzen duten egoerak daudelako edo Estatuko defentsari eragiten dioten premiak daudelako Administrazioak berehala jardun behar badu...”.

Kasu honetan, ez da Legearen 119. eta 120. artikuluek xedaturiko ziorik, beraz, kontratazio-espeditente hau **ohiko tramitazioaren** bidez izapidetuko da, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren Agiriaren 18. klausulan xedatzen den legez eta kontratu honen unitate sustatzaileak adierazitakoarekin bat etorriz.



## V.- KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

Epea: Bost urteko iraupena izango du, aurreikusitakoaren arabera, 2021eko abuztuaren 1etik, 2026ko uztailaren 31ra arte.

Balio zenbatetsia: SPKLaren 101. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, balio zenbatetsia kalkulatzeko indarrean dagoen lan-legeriak aurreikusitako kostuak izan dira kontutan. Gainera zerbitzuen exekuzio materialarengatik eratorritako kostuak eta industria-etekina izan dira kontutan; zehazki, zerbitzua gauzatzeko atxikitako personalaren soldatak eta ordainsariak. Hori guztia lontan hartuz, kontratuaren balio zenbatetsia **415.891,92** eurokoa da.

1 año sin IVA	1 año con IVA	VALOR ESTIMADO	PPTO BASE LICITACIÓN
		5 años sin IVA	5 años con IVA
83.178,38	100.645,84	415.891,92	503.229,22

IVA	%21,00
total años	5
pagas	14
horas/año	1796

	salario anualizado	horas	€ / hora *	€ / hora **
oficial	20.050,66	1796	11,16	17,95
admtvo.	15.776,04	1796	8,78	15

\* Convenio colectivo del sector ocio educativo y animación sociocultural.  
\*\* Según salarios obrantes en la lista a efectos de subrogación

salarios (bruto)	47.816,00
salarios con Seg. Social	63.595,28
beneficio indust. (6%)	3.815,72
gastos generales (13%)	8.267,39
Maquinaria y materiales	7.500,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>83.178,38</b>

categoria	% jornada	nº trabaj	horas / año	coste anual
oficial	100%	1	1796	32.230,00
oficial	20%	2	718	12.892,00
admtvo.	10%	1	180	2694
<b>TOTAL</b>		<b>3</b>	<b>2.694,00</b>	<b>47.816,00</b>

Lizitazioaren oinarri-aurrekontua: **503.229,22** euro, horietatik, 415.891,92 euro printzipalari dagozkio, eta 87.337,30 euro, BEZari (% 21).

Aurrekontuaren partida: Kontratuaren xede diren lanak, **0700.227.07.164.00** udal aurrekontu-partidaren kargura finantzatu dira. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoak aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partiden kargura. Halaber, hurrengo urteetako aurrekontuetan dagozkion zenbatekoa gorde beharko du dagozkion partidetan, kontratuak eragingo dituen gastuak ordaindu ahal izateko.

	meses	precio sin IVA	precio con IVA
2021	4	27.726,13	33.548,61
2022	12	83.178,38	100.645,84
2023	12	83.178,38	100.645,84
2024	12	83.178,38	100.645,84
2025	12	83.178,38	100.645,84
2026	8	55.452,26	67.097,23
<b>TOTAL</b>	<b>60</b>	<b>415.891,92</b>	<b>503.229,22</b>

Según lo previsto, el contrato dará comienzo el 1 de septiembre de 2021

## VI.- ESLEIPENA EGITEKO JARDUNBIDEA ETA MODUA

Proposatutako kontratazioari SPKLn jasotako esleipen-jardunbide eta moduak ezarriko zaizkio; hain zuzen ere, 131.2 artikulua xedatzen dituenak. Artikulu horrek honela dio: "Normalean, kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako adjudikazio irizpide ugari erabiliz adjudikatuko dira kontratuak, eta prozedura irekia edo prozedura murriztua erabiliz, salbu eta...".





Kontratu honen organo eskudunaren erabakiaren kalterik gabe, bidezkoa da espediente honetan **jardunbide irekia** erabiltzea, gardentasuna, publikitatea, eraginkortasuna eta diskriminazio ezaren printzipioak bermatzeko, hala, proposamen tekniko eta, batik bat, ekonomiko onuragarriagoak jasoko direla iritzi delako, lehia printzipioan oinarrituta. Hori betiere, SPKLren 156., 157., 158. eta 159. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz egin beharko da.

Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena irizpide bat baino gehiago erabiliz egitea proposatu da, eta Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren 20. klausulan eta haren I. Eranskinaren 10 eta 19 idatz-zatietan zehaztutako irizpideen arabera balioetsiko da, SPKLren 145. eta 159. artikuluek aurreikusitakoa betez, kontratuaren xedearekin lotura baitute. Kasu honetan, zifra edo ehunekotan baloratu daitezkeen irizpideak ehuneko 51 dira, zifra edo ehunekotan baloratu ezin daitezkeenak, berriz, ehuneko 49.

Azkenik, berme-epari dagokionez, SPKLren 111.5 azken idatz-zatian xedaturikoa betez, urtebetean finkatu da, kontratuaren balio zenbatetsiak 1.000.000 euroko kopurua gainditzen baitu.

## **VII.- ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN PLEGUA ETA PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA**

Kontratazio-espeditentarekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio Baldintza Partikularren Plegua eta Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua aztertu dira, kontuan harturik SPKLren 122. eta 124. artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa, eta egiaztatu da araututako xedapenekin bat datozela.

## **VIII.- KONTRATAZIO-ORGANOA**

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.

*1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.*

*2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko*



*apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateko alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.*

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia 415.891,92 eurokoa denez, aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (2.656.409 euro) baino txikiagoa da; beraz, alkate-lehendakariarena izango litzateke eskumena, baina kontratuaren iraupena lau urte baino gehiagokoa denez, **Udaleko Osoko Bilkura da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.**

Baina behin kontratazio jardunbidea onartuta eta lizitazioari hasiera emanda, **proposatzen da Osoko Bilkuraren eskumenak Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea, kontratuaren bukaera arte**, eraginkortasun eta bizkortasun arrazoiengatik, eta 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 22.4. artikuluan xedatutakoaz baliatuz. **Eskuordetze honetatik kanpo gelditzen dira kontratuaren balizko luzapenei buruzko akordioak, eta horiek udalbatza osoak ebatziko ditu.**

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190.eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat harturik, idazkariaren eta kontuhartzailearen aldeko txostenak ikusita, Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2021eko apirilaren 21ean egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

**Aldeko botoak:** Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Garbiñe Marzol Ormazabal, Ander Figuerido Zubiria, Kristina Pelaez Errazkin eta Jose Mari Villanueva Telleria . Aho batez onartu dute.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

## IRIZPENA

**Lehena.-** Tolosako San Blas, Bedaio eta Aldabako udal-hilerrien kudeaketa integralaren zerbitzu-kontratuaren espedientea onartzea eta lizitazioari hasiera ematea.



**Bigarrena.-** Kontratu honen ezaugarriak onartzea:

**Epea:** Bost urteko iraupena izango du, aurreikusitakoaren arabera, 2021eko abuztuaren 1etik, 2026ko uztailaren 31ra arte.

**Balio zenbatetsia:** SPKLaren 101. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, balio zenbatetsia kalkulatzeko indarrean dagoen lan-legeriak aurreikusitako kostuak izan dira kontutan. Gainera zerbitzuen exekuzio materialarengatik eratorritako kostuak eta industria-etekina izan dira kontutan; zehazki, zerbitzua gauzatzeko atxikitako pertsonalaren soldatak eta ordainsariak.

		VALOR ESTIMADO	PPTO BASE LICITACIÓN
1 año sin IVA	1 año con IVA	5 años sin IVA	5 años con IVA
83.178,38	100.645,84	415.891,92	503.229,22

Hori guztia lontan hartuz, kontratuaren balio zenbatetsia **415.891,92** eurokoa da.

IVA	%21,00
total años	5
pagas	14
horas/año	1796

	salario anualizado	horas	€ / hora *	€ / hora **
oficial	20.050,66	1796	11,16	17,95
admtvo.	15.776,04	1796	8,78	15

\* Convenio colectivo del sector ocio educativo y animación sociocultural.  
\*\* Según salarios obrantes en la lista a efectos de subrogación

salarios (bruto)	47.816,00
salarios con Seg. Social	63.595,28
beneficio indust. (6%)	3.815,72
gastos generales (13%)	8.267,39
Maquinaria y materiales	7.500,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>83.178,38</b>

categoria	% jornada	nº trabaj	horas / año	coste anual
oficial	100%	1	1796	32.230,00
oficial	20%	2	718	12.892,00
admtvo.	10%	1	180	2694
<b>TOTAL</b>		<b>3</b>	<b>2.694,00</b>	<b>47.816,00</b>

**Lizitazioaren oinarri-aurrekontua: 503.229,22 euro**, horietatik, 415.891,92 euro printzipalari dagozkio, eta 87.337,30 euro, BEZari (% 21).

**Aurrekontuaren partida:** Kontratuaren xede diren lanak, **0700.227.07.164.00** udal aurrekontu-partidaren kargura finantzatu dira. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoari aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partiden kargura. Halaber, hurrengo urteetako aurrekontuetan dagozkion zenbatekoa gorde beharko du dagozkion partidetan, kontratuak eragingo dituen gastuak ordaindu ahal izateko.

	meses	precio sin IVA	precio con IVA
2021	4	27.726,13	33.548,61
2022	12	83.178,38	100.645,84
2023	12	83.178,38	100.645,84
2024	12	83.178,38	100.645,84
2025	12	83.178,38	100.645,84
2026	8	55.452,26	67.097,23
<b>TOTAL</b>	<b>60</b>	<b>415.891,92</b>	<b>503.229,22</b>

Según lo previsto, el contrato dará comienzo el 1 de septiembre de 2021

**Hirugarrena.-** Onartzea kontratua gauzatzeko erabiliko diren Administrazio Baldintza Partikularren Plegua eta Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua.

**Laugarrena.-** Kontratazio-jardunbideari hasiera ematea (jardunbide irekia) eta dagozkion iragarkia argitaratzea Euskadiko Kontratatzailearen Profilean eta Europar Batasuneko



Aldizkari Ofizialean, lizitatzailerek beren proposamenak 40 egun naturaleko epean aurkez ditzaten, iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

**Bosgarrena.-** Behin kontratazio jardunbidea onartuta eta lizitazioari hasiera emanda, Osoko Bilkuraren eskumenak Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea, kontratuaren bukaera arte, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 22.4. artikuluan xedatutakoaz baliatuz. **Eskuordetze honetatik kanpo gelditzen dira kontratuaren balizko luzapenei buruzko akordioak, eta horiek udalbatza osoak ebatziko ditu.**

**Seigarrena.-** Erabaki horiek jakinaraztea Hirigintza Sailari, Ogasun eta Finantza Administrazioako Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Ander Figuerido Zubiria, Aitana Amondarain Esquisabel, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak aho batez **onartu** du kontratazio jardunbidea Tolosako San Blas, bedaio eta Aldabako udal hilerrien kudeaketa integralaren zerbitzu-kontratua arautuko duen esleipena egiteko, eta lizitazioari hasiera ematea.

**3. KONTRATAZIO JARDUNBIDEA ONARTZEA TOLOSAKO UDALERRIAN ARLO SOZIOEDUKATIBOAN ETA PSIKOSOZIALEAN ESKU-HARTZEKO ZERBITZU-KONTRATUA ARAUTUKO DUEN ESLEIPENA EGITEKO, ETA LIZITAZIOARI HASIERA EMATEA.**

**Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2021eko apirilaren 21eko irizpena**

**I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK**

Kontratuaren xedea	Tolosako udalerrian arlo sozioedukatiboan eta psikosozialean esku-hartzeko zerbitzua.
Unitate sustatzailea	Gizarte Zerbitzu eta Osasun Saila
Espedientea	2021SABI0006



## **II.- AURREKARIAK**

Lehena.- Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzu eta Osasun Saileko buruak 2021eko martxoaren 9an egindako txostenean, aipatutako xedea duen zerbitzu-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, jardunbidea burutu ahal izateko, honako hauek eskatu zituen: Administrazio Baldintza Partikularren Plegua; Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua; baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena; kontratua justifikatzeko memoria; eta idazkariaren eta kontuhartzailearen txostenak.

2021eko otsailaren 5ean Europar batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian (DO/S S25 60046-2021-ES) argitaratu zen lizitazioaren aurretiazko iragarkia.

Bigarrena.- 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak (SPKL hemendik aurrera), V. Kapituluaren (308. artikulutik aurrera), zerbitzu kontratuei buruzko xedapenak ematen ditu; horien artean, edukia eta limiteak, prezioa kalkulatzeko era eta kontratistaren erantzukizuna.

Hirugarrena.- Txosten berean, kontratuaren xehetasunak aipatzen zituen, beste batzuen artean: kontratuaren xedea, proiektuaren eremua, jarduketaren helburuak, kontratuaren prezioa, kontratua gauzatzeko epea eta egin beharreko lanak.

Laugarrena.- Halaber, aipatutako txostenean, SPKLren 28. artikuluan xedatutakoa betetzearren, kontratuaren egokitasuna eta beharra arrazoitzen dira. Aipatutako legeak hau zehazten du 28. artikuluan:

*Kontratuaren premia eta egokitasuna, eta efizientzia kontratazioan. 1. Sektore publikoko erakundeek beren helburu instituzionalak betetzeko eta gauzatzeko behar diren kontratuak egingo dituzte, ez besterik. Horretarako, zehatz-mehatz zehaztu behar dira egitekoa den kontratuaren bidez bete nahi diren premien izaera eta hedadura, bai eta kontratuaren objektua eta edukia premia horiei erantzuteko egokiak diren edo ez ere, prozedura ireki edo murriztuaren edo publikizaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatzen denean. Horren guztiaren berri jaso beharko da kontratua prestatzeko dokumentazioan, kontratua adjudikatzeko prozedurari ekin aurretik.*

## **III.- KONTRATAZIO-ESPEDIENTEA, KONTRATUAREN IZAERA ETA KAUDIMENA**

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, 116.1 artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz, esleipen-jardunbidea osatzen duten izapideak hasi baino lehen, kontratazio-espeditentea osatu behar da. Espeditentea, aipatutako Legearen 116.3 artikulua ezarritakoaren arabera egin da, eta 117. artikulua xedatzen duenaren arabera onartu beharko da, esleipen-jardunbideari hasiera emanez.



Espedientea aztertu ondoren, honako dokumentuok dituela egiaztatu da:

- Espedientearen unitate sustatzaileko arduradunak egindako kontratazio-proposamena.
- Berezko baliabideak ez izatearen justifikazioa jasotzen duen txostena.
- Asmatu enpresak egindako azterketa ekonomikoa.
- Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua.
- Administrazio Baldintza Partikularren Plegua.
- Lege-txostena.
- Fiskalizazio txostena.

Kontratu honek administrazio-izaera du, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 25.1 artikulua a) atalean xedaturikoarekin bat etorrira; zerbitzu kontratua hain zuzen ere, aipatutako Legearen 17. artikuluan xedaturikoaren arabera, non hau zehazten duen:

*Zerbitzu-kontratuak objektu hau dutenak dira: jarduera bat garatuz prestazioak ematea edo obrak edo horniduraz bestelako emaitza bat lortzera bideratutako prestazioak ematea; halako kontratuen artean daude, besteak beste, adjudikazioduna zerbitzuak hurrenez hurren eta prezio unitario baten truke ematera behartzen den kontratuak. Ezin dira kontratu horien objektu izan botere publikoei dagokien aginteaz baliatzea eskatzen duten zerbitzuak.*

**Bestalde, zerbitzu-kontratu honetan honako hau kontuan izan behar da:**

Lehen.- Kontratu honetan aurreikusitako **balio zenbatetsia 2.505.641,48 eurokoa da**, aintzat hartuta 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 101.1.a). artikuluan xedaturikoa.

						modificaciones previstas	VALOR ESTIMADO
1 año sin IVA	1 año con IVA	2 años sin IVA	2 años con IVA	5 años sin IVA	5 años con IVA	PPTO BASE LICITACIÓN	
417.606,91	459.367,60	835.213,83	918.735,21	2.088.034,56	2.296.838,02	417.606,91	2.505.641,48

Bigarrena.- Kontratazio honetan **ez da lotetan banatzea aurreikusi**, eta hori justifikatu da espedientean. Hauexek dira lotetan ez banatzeko arrazoiak: kontratuaren xedean jarduketa integrala eskatzen denez, eta kontuan hartuta kontratuaren xede diren jarduera eta lan guztiak espazio fisiko berean garatuko direla, ez da egokia hura lotetan banatzea; izan ere, kontratuaren xedean jasotako hainbat prestazio modu independentean egiteak zaildu egingo luke hura ikuspegi teknikitik behar bezala gauzatzea. Era berean, koordinazioa beharrezkoa da kontratuko hainbat prestazioren exekuzioan, eta, horiek

ESKUA63d0247-331a-4131-b69b-d60493052211



lotetan banatuz gero, horiek gauzatzea ezinezkoa izango litzateke, edo, gutxienez, jarduketa eraginkor, garden eta osoaren printzipioekin talka egingo luke.

Hirugarrena.- Zerbitzu-kontratuak 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak (SPKL), 19. artikuluan xedatutakoaren arabera, araudi armonizatuari loturik egon daitezkeen kontratuak izan daitezke. Kasu honetan, kontratuaren xedea SPKLren IV. Eranskinean jasotako gizarte-zerbitzuetako kontratu bat da hau, beraz, 22.1 artikuluren c) idatz-zatian xedatzen den kontratuaren balio zenbatetsia gainditzen duenez (750.000 €), araudi horretara dago lotuta; beraz, **arau armonizatupeko kontratua da hau**. Horrenbestez, lizitazioaren iragarkia, **kontratzailearen profileen argitaratzeaz gain, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian ere argitaratu beharko da.**

Laugarrena.- SPKLren 44.1 a) artikulua xedaturikoaren arabera, kontratazioari buruzko errekurtsio berezia tartekatu ahal izango da, balio zenbatetsiak 100.000,00 euroko kopurua gainditzen badu; beraz, kasu honetan atalase hori gainditzen duenez, **kontratazioari buruzko errekurtsio bereziaren menpe egongo da lizitazioa**. Horrenbestez, SPKLren 153. artikuluan xedatutakoa jarraituz, kontratua ezingo da formalizatu adjudikazioaren jakinarazpena lizitazailerei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hasita hamabost egun balioduneko epea igaro baino lehen.

Bosgarrena.- Bestalde, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren I. tituluaren IV. Kapituluaren eta horren I. Eranskinaren 11. atalean jasotzen dira kaudimenari buruzko baldintzak, SPKLk 86., 87., eta 90. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Seigarrena.- Halaber, eta ordainagirien ordainketari dagokionez, kontuan hartu beharko da aipatu legearen 198.4 artikuluan xedaturikoa:

*4. Obra-ziurtagiriak onartu ondoren, edo ondasunak nahiz zerbitzuak kontratuan xedatutako moduan entregatu eta eman direla egiaztatzen duten agiriak eman ondoren, hogeita hamar egun izango ditu Administrazioak prezioa ordaintzeko, hargatik eragotzi gabe 210. artikulua 4. apartatuan ezarritako epe berezia; Administrazioa prezioa ordaintzen atzeratzen bada, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak ordaindu behar dizkio kontratistari epe hori igarotakoan, Merkataritza-eragiketarako Berankortasunaren aurkako Neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen arabera. Interesak sortzeko epea abiarazteko, kontratistak bete egin behar du faktura dagokion administrazio-erregistroan garai eta modu egokian aurkezteko betebeharra, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan. Betebehar hori hogeita hamar eguneko epean bete behar du, salgaiak egiaz entregatu edo zerbitzua egiaz eman duen egunetik aurrera.*



#### IV.- ESPEDIENTE MOTA

SPKLk 116., 119. eta 120. artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditentek hiru eratakoak izan daitezke, hain zuzen ere, arruntak edo ohikoak, presakoak eta larrialdietakoak. Presakoak, 119. artikuluan arautzen dira honako honen arabera: *“Presako izapidetzea erabili ahal izango da atzera ezineko premia daukaten kontratuen espeditentek edo interes publikoa dela-eta kontratuen adjudikazioa bizkortu beharra dutenak izapidetzeko. Horretarako, kontratazio-organoak egindako urgentzia adierazpena eduki behar du espeditentek, behar bezala arrazoitua”*. Halaber, presakotzat jotzeak legean zehaztutako lehentasun-ondorioak eta epeen murrizketa dakartza.

Larrialdietakoak, aldiz, 120. artikuluan arautzen dira, ondorengoaren arabera: *“Edo hondamendiak gertatu direlako edo arrisku larria sortzen duten egoerak daudelako edo Estatuko defentsari eragiten dioten premiak daudelako Administrazioak berehala jardun behar badu...”*.

Kasu honetan, ez da Legearen 119 eta 120. artikuluek xedaturiko ziorik beraz, kontratazio-espeditente hau **ohiko tramitazioaren** bidez izapidetuko da, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren 18. klausulan xedatzen den legez eta kontratu honen unitate sustatzaileak adierazitakoarekin bat etorritz.

Kasu honetan, SPKLaren 117.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditente hau **izapidetze aurreratuaz egingo da**, exekuzio materiala hurrengo ekitaldian hasi behar duen kontratua dagokion kontratua finantzatu behar duten baliabideen kontsolidazio efektiboaren mende baitago, hau da, kontratua benetan exekutatzeko, hurrengo ekitaldietako udal-aurerakontuetan kreditu egokia eta nahikoa egon behar da.

#### V.- KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

**Epea:** Kontratuak bi urteko iraupena izango du, beste bi alditan luzatzeko aukerarekin: lehenengoan bi urtekoa eta bigarrenean urtebetekoa. Beraz, gehieneko iraupena bost urtekoa izango da.

**Balio zenbatetsia:** SPKLaren 101. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, balio zenbatetsia kalkulatzeko indarrean dagoen lan-legeriak aurreikusitako kostuak izan dira kontutan. Gainera zerbitzuen exekuzio materialarengatik eratorritako kostuak eta industria-etekina izan dira kontutan; zehazki, zerbitzua gauzatzeko atxikitako pertsonalaren soldatak eta ordainsariak. Hori guztia kontuan hartuz, kontratuaren balio zenbatetsia **2.505.641,48** eurokoa da.





CÁLCULO DE COSTES (salarios reales)	
salarios (bruto)	242.375,00
salarios con Seg. Social	322.358,75
beneficio industrial (6%)	19.341,53
gastos generales (13%)	41.906,64
alquiler local	24.000,00
materiales y otros	10.000,00
<b>TOTAL</b>	<b>417.606,91</b>

COSTES SALARIALES			
categoria	nº trab.	dedicación	coste anual
director	1	50,00 %	16.927,00
trab. Social 1	1	100,00 %	29.165,00
trab. Social 2	1	50,00 %	16.927,00
psicólogo	1	100,00 %	41.800,00
educador	6	100,00 %	137.556,00
<b>TOTAL</b>	<b>10</b>		<b>242.375,00</b>

PPTO BASE LICITACIÓN						modificaciones previstas	VALOR ESTIMADO
1 año sin IVA	1 año con IVA	2 años sin IVA	2 años con IVA	5 años sin IVA	5 años con IVA		
417.606,91	459.367,60	835.213,83	918.735,21	2.088.034,56	2.296.838,02	417.606,91	2.505.641,48

Lizitazioaren oinarri-aurrekontua: **918.735,21 euro**, horietatik, 835.213,83 euro printzipalari dagozkio, eta 83.521,38 euro, BEZari (% 10).

Aurrekontuaren partida: Kontratuaren xede diren lanak, **0500.227.04.231.00** udal aurrekontu-partidaren kargura finantzatu dira. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoari aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partiden kargura. Halaber, hurrengo urteetako aurrekontuetan dagoen zenbatekoa gorde beharko du dagokion partidetan, kontratuak eragingo dituen gastuak ordaindu ahal izateko.

	meses	valor estimado	cuota a pagar (IVA incluido)
2022	12	417.606,91	459.367,60
2023	12	417.606,91	459.367,60
2024	12	417.606,91	459.367,60
2025	12	417.606,91	459.367,60
2026	12	417.606,91	459.367,60
modificaciones	20,00 %	417.606,91	
<b>TOTAL</b>	<b>60</b>	<b>2.505.641,48</b>	<b>2.296.838,02</b>

*Aurreikusita dago kontratua 2022ko urtamiaren 1ean hasia izango dela eta Se estima que el contrato dé comienzo el 1 de enero de 2022*

Kasu honetan, SPKLaren 117.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditante hau **izapidetze aurreratuz egingo da**, exekuzio materiala hurrengo ekitaldian hasi behar duen kontratua dagokion kontratua finantzatu behar duten baliabideen kontsolidazio efektiboaren mende baitago, hau da, **kontratua benetan exekutatzeko, hurrengo ekitaldietako udal-aurrekontuetan kreditu egokia eta nahikoa egon behar da.**

## VI.- ESLEIPENA EGITEKO JARDUNBIDEA ETA MODUA

Proposatutako kontratazioari SPKLn jasotako esleipen-jardunbide eta moduak ezarriko zaizkio; hain zuzen ere, 131.2 artikulua xedatzen dituenak. Artikulu horrek honela dio: *“Normalean, kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako adjudikazio irizpide ugari erabiliz adjudikatuko dira kontratuak, eta prozedura irekia edo prozedura murriztua erabiliz, salbu eta...”*

Kontratu honen organo eskudunaren erabakiaren kalterik gabe, bidezkoa da espeditante honetan **jardunbide irekia** erabiltzea, gardentasuna, publikitatea, eraginkortasuna eta



diskriminazio ezaren printzipioak bermatzeko, hala, proposamen tekniko eta, batik bat, ekonomiko onuragarriagoak jasoko direla iritzi delako, lehia printzipioan oinarrituta. Hori betiere, SPKLren 156., 157., 158. eta 159. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz egin beharko da.

Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena irizpide bat baino gehiago erabiliz egitea proposatu da, eta Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren 20. klausulan eta haren I. Eranskinaren 10 eta 19 idatz-zatietan zehaztutako irizpideen arabera balioetsiko da, SPKLren 145. eta 159. artikuluek aurreikusitakoa betez, kontratuaren xedearekin lotura baitute. Kasu honetan, zifra edo ehunekotan baloratu daitezkeen irizpideak ehuneko 51 dira, zifra edo ehunekotan baloratu ezin daitezkeenak, berriz, ehuneko 49.

Azkenik, berme-epeari dagokionez, SPKLren 111.5 azken idatz-zatian xedaturikoa betez, urtebetean finkatu da, kontratuaren balio zenbatetsiak 1.000.000 euroko kopurua gainditzen baitu.

## **VII.- ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN PLEGUA ETA PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA**

Kontratazio-espeditentarekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio Baldintza Partikularren Plegua eta Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua aztertu dira, kontuan harturik SPKLren 122. eta 124. artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa, eta egiaztatu da araututako xedapenekin bat datozela.

## **VIII.- KONTRATAZIO-ORGANOA**

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.

*1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.*

*2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-*



*entitateko alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.*

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia 2.505.641,48 eurokoa denez, aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (2.656.409 euro) baino txikiagoa da; beraz, alkate-lehendakariarena izango litzateke eskumena, baina kontratuaren iraupena lau urte baino gehiagokoa denez, **Udaleko Osoko Bilkura da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.**

Baina behin kontratazio jardunbidea onartuta eta lizitazioari hasiera emanda, **proposatzen da Osoko Bilkuraren eskumenak Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea, kontratuaren bukaera arte**, eraginkortasun eta bizkortasun arrazoiengatik, eta 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 22.4. artikuluan xedatutakoaz baliatuz. **Eskuordetze honetatik kanpo gelditzen dira kontratuaren balizko luzapenei buruzko akordioak, eta horiek udalbatza osoak ebartziko ditu.**

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190.eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat harturik, idazkariaren eta kontuhartzailearen aldeko txostenak ikusita, Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2021eko apirilaren 21ean egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

**Aldeko botoak:** Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Garbiñe Marzol Ormazabal, Ander Figuerido Zubiria, Kristina Pelaez Errazkin eta Jose Mari Villanueva Telleria . Aho batez onartu dute.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

## IRIZPENA

**Lehena.-** Tolosako udalerrian arlo sozioedukatihoan eta psikosozialean esku-hartzeko zerbitzu-kontratuaren espedientea onartzea eta lizitazioari hasiera ematea.

**Bigarrena.-** Kontratu honen ezaugarriak onartzea:



Epea: Kontratuak bi urteko iraupena izango du, beste bi alditan luzatzeko aukerarekin: lehenengoan bi urtekoa eta bigarrenean urtebetekoa. Beraz, gehieneko iraupena bost urtekoa izango da.

Balio zenbatetsia: SPKLaren 101. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri, balio zenbatetsia kalkulatzeko indarrean dagoen lan-legeriak aurreikusitako kostuak izan dira kontutan. Gainera zerbitzuen exekuzio materialarengatik eratorritako kostuak eta industria-etekina izan dira kontutan; zehazki, zerbitzua gauzatzeko atxikitako pertsonalaren soldatak eta ordainsariak. Hori guztia kontuan hartuz, kontratuaren balio zenbatetsia **2.505.641,48** eurokoa da.

CÁLCULO DE COSTES (salarios reales)	
salarios (bruto)	242.375,00
salarios con Seg. Social	322.358,75
beneficio industrial (6%)	19.341,53
gastos generales (13%)	41.906,64
alquiler local	24.000,00
materiales y otros	10.000,00
<b>TOTAL</b>	<b>417.606,91</b>

COSTES SALARIALES			
categoria	nº trab.	dedicación	coste anual
director	1	50,00 %	16.927,00
trab. Social 1	1	100,00 %	29.165,00
trab. Social 2	1	50,00 %	16.927,00
psicólogo	1	100,00 %	41.800,00
educador	6	100,00 %	137.556,00
<b>TOTAL</b>	<b>10</b>		<b>242.375,00</b>

PPTO BASE LICITACIÓN						modificaciones previstas	VALOR ESTIMADO
1 año sin IVA	1 año con IVA	2 años sin IVA	2 años con IVA	5 años sin IVA	5 años con IVA		
417.606,91	459.367,60	835.213,83	918.735,21	2.088.034,56	2.296.838,02	417.606,91	2.505.641,48

Lizitazioaren oinarri-aurrekontua: **918.735,21 euro**, horietatik, 835.213,83 euro printzipalari dagozkio, eta 83.521,38 euro, BEZari (% 10).

Aurrekontuaren partida: Kontratuaren xede diren lanak, **0500.227.04.231.00** udal aurrekontu-partidaren kargura finantzatzeko dira. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoari aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partiden kargura. Halaber, hurrengo urteetako aurrekontuetan dagokion zenbatekoa gorde beharko du dagokion partidetan, kontratuak eragingo dituen gastuak ordaindu ahal izateko.

	meses	valor estimado	cuota a pagar (IVA incluido)
2022	12	417.606,91	459.367,60
2023	12	417.606,91	459.367,60
2024	12	417.606,91	459.367,60
2025	12	417.606,91	459.367,60
2026	12	417.606,91	459.367,60
modificaciones	20,00 %	417.606,91	
<b>TOTAL</b>	<b>60</b>	<b>2.505.641,48</b>	<b>2.296.838,02</b>

*Aurreikusita dago kontratua 2022ko urtamiaren 1ean hastea  
Se estima que el contrato dé comienzo el 1 de enero de 2022*

Kasu honetan, SPKLaren 117.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditente hau **izapidetze aurreratuaz egingo da**, exekuzio materiala hurrengo ekitaldian hasi behar duen kontratua dagokion kontratua finantzatu behar duten baliabideen kontsolidazio efektiboaren mende baitago, hau da, kontratua benetan exekutatzeko, hurrengo ekitaldietako udal-aurrekontuetan kreditu egokia eta nahikoa egon behar da.

**Hirugarrena.-** Onartzea kontratua gauzatzeko erabiliko diren Administrazio Baldintza Partikularren Plegua eta Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua.



**Laugarrena.-** Kontratazio-jardunbideari hasiera ematea (jardunbide irekia) eta dagokion iragarkia argitaratzea Euskadiko Kontratatzailearen Profilean eta Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean, lizitatzailerek beren proposamenak 40 egun naturaleko epean aurkez ditzaten, iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

**Bosgarrena.-** Behin kontratazio jardunbidea onartuta eta lizitazioari hasiera emanda, Osoko Bilkuraren eskumenak Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea, kontratuaren bukaera arte, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 22.4. artikuluan xedatutakoaz baliatuz. **Eskuordetze honetatik kanpo gelditzen dira kontratuaren balizko luzapenei buruzko akordioak, eta horiek udalbatza osoak ebatziko ditu.**

**Seigarrena.-** Erabaki horiek jakinaraztea Gizarte Zerbitzu eta Osasun Sailari, Ogasun eta Finantza Administrazioako Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Ander Figuerido Zubiria, Aitana Amondarain Esquisabel, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak aho batez onartu du kontratazio jardunbidea Tolosako udalerrian arlo sozioedukatihoan eta psikosozialean esku-hartzeko zerbitzu-kontratua arautuko duen esleipena egiteko, eta lizitazioari hasiera ematea.

**4. TOLOSAKO UDAL ERAIKINAK ETA HIRI-ALTZARIAK GARBITZEKO ZERBITZU-KONTRATUAREN ESPEDIENTEA PRESAKOTZAT JOTZEA ETA LIZITAZIOA ARAUTUKO DUEN KONTRATAZIO JARDUNBIDEA ONARTZEA, ETA LIZITAZIOARI HASIERA EMATEA.**

**Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2021eko apirilaren 21eko irizpena**

**I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK**

Kontratuaren	Tolosako udal eraikinak eta hiri-altzariak garbitzeko zerbitzu-
--------------	---



xedea:	kontratua.
Unitate sustatzailea:	Hirigintza Saila
Espedientea:	2021SABI00007

## II.- AURREKARIAK

Lehena.- Tolosako Udaleko Hirigintza Saileko teknikariak 2021ko apirilaren 7an egindako txostenean, aipatutako xedea duen zerbitzu-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, jardunbidea burutu ahal izateko, honako hauek eskatu zituen: Administrazio Baldintza Partikularren Plegua, Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua, baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena, kontratua justifikatzeko memoria eta idazkariaren eta kontuhartzailearen txostenak.

Kontratazio espediente hau, 2020SABI0010 kontratazio-espediente huts deklaratu izanaren ondorioa da. Beraz, SPKLren 119. artikuluan xedatutakoaren arabera, espediente hau premia atzeraezin bati erantzuteko kontratua denez eta interes publikoko arrazoiengatik esleipena azkartu behar denez, **kontratazio organoak presakotzat jo beharko du**. Hori dela eta, espedienteak lehentasuna du izapidetzeko. Hori dela eta, eta SPKLren 156. artikuluko 3) idatz-zatiko b) letran xedatutakoarekin bat etorritik, enpresa lizitatzailen proposamenak bitarteko elektronikoen bidez baino ez dira aurkeztuko eta proposamenak aurkezteko epea murriztuko da aurrerago esango den bezala.

Bigarrena.- 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak (SPKL hemendik aurrera), V. Kapituluaren (308. artikulutik aurrera), zerbitzu kontratuei buruzko xedapenak ematen ditu; horien artean, edukia eta limiteak, prezioa kalkulatzeko era eta kontratistaren erantzukizuna.

Hirugarrena.- Txosten berean, kontratuaren xehetasunak aipatzen zituen, beste batzuen artean: kontratuaren xedea, proiektuaren eremua, jarduketaren helburuak, kontratuaren prezioa, kontratua gauzatzeko epea eta egin beharreko lanak.

Laugarrena.- Halaber, aipatutako txostenean, SPKLren 28. artikuluan xedatutakoa betetzearren, kontratuaren egokitasuna eta beharra arrazoitzen dira. Aipatutako legeak hau zehazten du 28. artikuluan:

*Kontratuaren premia eta egokitasuna, eta efizientzia kontratazioan. 1. Sektore publikoko erakundeek beren helburu instituzionalak betetzeko eta gauzatzeko behar diren kontratuak egingo dituzte, ez besterik. Horretarako, zehatz-mehatz zehaztu behar dira egitekoa den kontratuaren bidez bete nahi diren premien izaera eta hedadura, bai eta kontratuaren objektua eta edukia premia horiei erantzuteko egokiak diren edo ez ere, prozedura ireki edo murriztuaren edo publikitatez gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatzen denean. Horren guztiaren berri jaso beharko da kontratua*



*prestatzeko dokumentazioan, kontratua adjudikatzeko prozedurari ekin aurretik.*

### **III.- KONTRATAZIO-ESPEDIENTEA, KONTRATUAREN IZAERA ETA KAUDIMENA**

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuari buruzkoak, 116.1 artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz, esleipen-jardunbidea osatzen duten izapideak hasi baino lehen, kontratazio-espeditentea osatu behar da. Espeditentea, aipatutako Legearen 116.3 artikulua ezarritakoaren arabera egin da, eta 117. artikulua xedatzen duenaren arabera onartu behar da, esleipen-jardunbideari hasiera emanez.

Espeditentea aztertu ondoren, honako dokumentuok dituela egiaztatzen da:

- Hirigintza Saileko buruak egindako kontratazio-proposamena.
- Berezko baliabideak ez izatearen justifikazioa jasotzen duen txostena.
- Azterketa ekonomikoa.
- Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua.
- Administrazio Baldintza Partikularren Plegua.
- Lege-txostena.
- Fiskalizazio txostena.

Kontratu honek administrazio-izaera du, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 25.1 artikulua a) atalean xedaturikoarekin bat etorrira; zerbitzu kontratua hain zuzen ere, aipatutako Legearen 17. artikuluan xedaturikoaren arabera, non hau zehazten duen:

*Zerbitzu-kontratuak objektu hau dutenak dira: jarduera bat garatuz prestazioak ematea edo obrak edo horniduraz bestelako emaitza bat lortzera bideratutako prestazioak ematea; halako kontratuen artean daude, besteak beste, adjudikazioduna zerbitzuak hurrenez hurren eta prezio unitario baten truke ematera behartzen den kontratuak. Ezin dira kontratu horien objektu izan botere publikoari dagokien aginteaz baliatzea eskatzen duten zerbitzuak.*

#### **Bestalde, zerbitzu-kontratu honetan honako hau kontuan izan behar da:**

**Lehenena.-** Kontratu honetan aurreikusitako **balio zenbatetsia 2.694.183,39 eurokoa da**, aintzat hartuta 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 101.1.a) artikuluan xedaturikoa.

Lizitazioaren zenbatekoa (BEZ gabe)	891.791,78 €
Aurreikusitako aldaketaren zenbatekoa (BEZik gabe)	410.000,00 €
Luzapenak (BEZik gabe)	1.392.391,61 €
<b>BALIO ZENBATETSIA, GUZTIRA</b>	<b>2.694.183,39 €</b>

**Bigarrena.-** Kontratazio honetan **ez da lotetan banatzea aurreikusi**, eta hori justifikatu da espeditentean. Hauexek dira lotetan ez banatzeko arrazoiak: kontratuaren xedean jarduketara integrala eskatzen denez, eta kontuan hartuta kontratuaren xede diren jarduera



eta lan guztiak espazio fisiko berean garatuko direla, ez da egokia hura lotetan banatzea; izan ere, kontratuaren xedean jasotako hainbat prestazio modu independentean egiteak zaildu egingo luke hura ikuspegi teknikotik behar bezala gauzatzea. Era berean, koordinazioa beharrezkoa da kontratuko hainbat prestazioren exekuzioan, eta, horiek lotetan banatuz gero, horiek gauzatzea ezinezkoa izango litzateke, edo, gutxienez, jarduketa eraginkor, garden eta osoaren printzipioekin talka egingo luke.

Hirugarrena.- Zerbitzu-kontratuak 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak (SPKL), 19. artikuluan xedatutakoaren arabera, araudi armonizatuari loturik egon daitezkeen kontratuak izan daitezke; kasu honetan, 22. artikulua xedatzen duen kontratuaren balio zenbatetsia gainditzen duenez (214.000,00 €), araudi horretara dago lotuta; beraz, **arau armonizatupeko kontratua da hau**. Horrenbestez, lizitazioaren iragarkia, **kontratatzailearen profilean argitaratzeaz gain, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian ere argitaratu beharko da.**

Laugarrena.- SPKLren 44.1 a) artikulua xedaturikoaren arabera, kontratazioari buruzko errekurtsio berezia tartekatu ahal izango da, balio zenbatetsiak 100.000,00 euroko kopurua gainditzen badu; beraz, kasu honetan atalase hori gainditzen duenez, **kontratazioari buruzko errekurtsio bereziaren menpe egongo da lizitazioa**. Horrenbestez, SPKLren 153. artikuluan xedatutakoa jarraituz, kontratua ezingo da formalizatu adjudikazioaren jakinarazpena lizitatzailerei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hasita hamabost egun balioduneko epea igaro baino lehen.

Bosgarrena.- Bestalde, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren I. tituluaren IV. Kapituluaren eta horren I. Eranskinaren 11. atalean jasotzen dira kaudimenari buruzko baldintzak, SPKLk 86., 87., eta 90. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Seigarrena.- Halaber, eta ordainagirien ordainketari dagokionez, kontuan hartu beharko da aipatu legearen 198.4 artikuluan xedaturikoa:

*4. Obra-ziurtagiriak onartu ondoren, edo ondasunak nahiz zerbitzuak kontratuan xedatutako moduan entregatu eta eman direla egiaztatzen duten agiriak eman ondoren, hogeita hamar egun izango ditu Administrazioak prezioa ordaintzeko, hargatik eragotzi gabe 210. artikulua 4. apartatuan ezarritako epe berezia; Administrazioa prezioa ordaintzen atzeratzen bada, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak ordaindu behar dizkio kontratistari epe hori igarotakoan, Merkataritza-eragiketarako Berankortasunaren aurkako Neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen arabera. Interesak sortzeko epea abiarazteko, kontratistak bete egin behar du faktura dagokion administrazio-erregistroan garai eta modu egokian aurkezteko betebeharra, faktura elektronikoa buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan. Betebehar hori hogeita hamar eguneko epean bete behar du, salgaiak egiaz entregatu edo zerbitzua egiaz eman duen egunetik aurrera.*





#### IV.- ESPEDIENTE MOTA

SPKLk 116., 119. eta 120. artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditentek hiru eratakoak izan daitezke, hain zuzen ere, arruntak edo ohikoak, presakoak eta larrialdietakoak. Presakoak, 119. artikuluan arautzen dira honako honen arabera: *“Presako izapidetzea erabili ahal izango da atzera ezineko premia daukaten kontratuen espeditentek edo interes publikoa dela-eta kontratuen adjudikazioa bizkortu beharra dutenak izapidetzeko. Horretarako, kontratazio-organoak egindako urgentzia adierazpena eduki behar du espeditentek, behar bezala arrazoitua”*. Halaber, presakotzat jotzeak legean zehaztutako lehentasun-ondorioak eta epeen murrizketa dakartza.

Larrialdietakoak, aldiz, 120. artikuluan arautzen dira, ondorengoaren arabera: *“Edo hondamendiak gertatu direlako edo arrisku larria sortzen duten egoerak daudelako edo Estatuko defentsari eragiten dioten premiak daudelako Administrazioak berehala jardun behar badu...”*.

Kasu honetan, Legearen 119. artikuluan xedatutakoa betetzen da kontratazio espeditente hau, 2020SABI0010 kontratazio-espeditentea huts deklaratu izanaren ondorioa baita. Beraz, espeditente hau premia atzeraezin bati erantzuteko kontratua denez eta interes publikoko arrazoiengatik esleipena azkartu behar denez, kontratazio-espeditente hau **presako izapidetzeren** bidez izapidetuko da. Hori dela eta, eta SPKLren 156. artikuluko 3) idatz-zatiko b) letran xedatutakoarekin bat etorriz, enpresa lizitzaileen proposamenak bitarteko elektronikoen bidez baino ez dira aurkeztuko eta proposamenak aurkezteko epea murriztuko da aurrerago esango den bezala.

#### V.- KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

Epea: Bi urteko iraupena izango du kontratua formalizatzen denetik; hala ere, beste hiru urteko luzapena aurreikusten da.

Balio zenbatetsia: SPKLaren 101. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, balio zenbatetsia kalkulatzeko indarrean dagoen lan-legeriak aurreikusitako kostuak izan dira kontutan. Gainera zerbitzuen exekuzio materialarengatik eratorritako kostuak eta industria-etekina izan dira kontutan; zehazki, zerbitzua gauzatzeko atxikitako pertsonalaren soldatak eta ordainsariak. Hori guztia lontan hartuz, kontratuaren balio zenbatetsia **2.694.183,39** eurokoa da.

Lizitazioaren zenbatekoa (BEZ gabe)	891.791,78 €
Aurreikusitako aldaketen zenbatekoa (BEZik gabe)	410.000,00 €
Luzapenak (BEZik gabe)	1.392.391,61 €
<b>BALIO ZENBATETSIA, GUZTIRA</b>	<b>2.694.183,39 €</b>

						modificaciones previstas	VALOR ESTIMADO
1 años sin IVA	1 año con IVA	2 años sin IVA	2 años con IVA	5 años sin IVA	5 años con IVA		
442.313,23 €	535.199,00 €	891.791,78	1.079.068,05	2.284.183,39	2.763.861,90	410.000,00	2.694.183,39

Pleguarekin batera, egindako azterketa ekonomikoa jaso da. Azterketa horretatik



abiatuta, lizitazioaren erreferentzia ekonomiko guztiak lortu dira. Azterketa ekonomiko hori lizitazio hau arautzen duen dokumentazioaren zati banaezina da.

Lizitazioaren oinarri-aurrekontua: **1.079.068,05 euro**, horietatik, 891.791,78 euro printzipalari dagozkio, eta 187.276,27 euro, BEZari (% 21).

Aurrekontuaren partida: Kontratuaren xede diren lanak, eragindako programen udal-aurrekontuaren **227.01 "garbiketa" azpikontzeptuko** udal aurrekontu-partiden kargura finantzatu dira. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoari aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partiden kargura. Halaber, hurrengo urteetako aurrekontuetan dagokion zenbatekoa gorde beharko du dagokion partidetan, kontratuak eragingo dituen gastuak ordaindu ahal izateko.

	meses	valor estimado	cuota a pagar (IVA incluido)
2021	6	228.418,34	276.386,19
2022	12	456.836,68	552.772,38
2023	6	228.418,34	276.386,19
	6	228.418,34	276.386,19
2024	6	228.418,34	276.386,19
	6	228.418,34	276.386,19
2025	6	228.418,34	276.386,19
	6	228.418,34	276.386,19
2026	6	228.418,34	276.386,19
modificaciones		410.000,00	
<b>TOTAL</b>	<b>60</b>	<b>2.694.183,39</b>	<b>2.763.861,90</b>

*Aurreikusita dago kontratua 2021eko uztailaren 1ean hasia  
Se estima que el contrato dé comienzo el 1 de julio de 2021*

Udal-eraikin guztietan eta hiri-altzarietan egindako lanak argi eta garbi bereizteko, lizitazio honen dokumentaziotik bereizi ezin den azterlan ekonomikoan egindako banakapenean xedatutakoaren arabera, eta dagozkion gastuak egotzi ahal izateko, esleipendunak hilero faktura bat aurkeztuko du 1etik 25era zenbakitutako eraikin/altzari bakoitzeko. Bertan, mantentze-lanei, kristalei eta jaiegunei (halakorik balego) dagokien gastua banakatuko da.

## VI.- ESLEIPENA EGITEKO JARDUNBIDEA ETA MODUA

Proposatutako kontratazioari SPKLn jasotako esleipen-jardunbide eta moduak ezarriko zaizkio; hain zuzen ere, 131.2 artikulua xedatzen dituenak. Artikulu horrek honela dio: *"Normalean, kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako adjudikazio irizpide ugari erabiliz adjudikatuko dira kontratuak, eta prozedura irekia edo prozedura murriztua erabiliz, salbu eta..."*.

Kontratu honen organo eskudunaren erabakiaren kalterik gabe, bidezkoa da espediente honetan **jardunbide irekia** erabiltzea, gardentasuna, publikitatea, eraginkortasuna eta diskriminazio ezaren printzipioak bermatzeko, hala, proposamen tekniko eta, batik bat, ekonomiko onuragarriagoak jasoko direla iritzi delako, lehia printzipioan oinarrituta. Hori betiere, SPKLren 156., 157., 158. eta 159. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz egin beharko da.

Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena irizpide bat baino gehiago erabiliz egitea proposatu da, eta Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren 20. klausulan eta haren I. Eranskinaren 10 eta 19 idatz-zatietan zehaztutako irizpideen arabera balioetsiko da, SPKLren 145. eta 159. artikuluek aurreikusitakoa betez, kontratuaren xedearekin lotura baitute. Kasu honetan, zifra edo ehunekotan baloratu



daitezkeen irizpideak ehuneko 51 dira, zifra edo ehunekotan baloratu ezin daitezkeenak, berriz, ehuneko 49.

Azkenik, berme-epeari dagokionez, SPKLren 111.5 azken idatz-zatian xedaturikoa betez, urtebetean finkatu da, kontratuaren balio zenbatetsiak 1.000.000 euroko kopurua gainditzen baitu.

### **VII.- ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN PLEGUA ETA PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA**

Kontratazio-espeditareekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio Baldintza Partikularren Plegua eta Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua aztertu dira, kontuan harturik SPKLren 122. eta 124. artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa, eta egiaztatu da araututako xedapenekin bat datozela.

### **VIII.- KONTRATAZIO-ORGANOA**

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.

*1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.*

*2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateetako alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.*

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia 2.694.183,39 eurokoa denez, aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (2.656.409 euro) baino altuagoa da; gainera, kontratuaren iraupen osoa, luzapenak barne, bost urtekoa denez, **Udaleko Osoko Bilkura da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.**



Baina behin kontratazio jardunbidea onartuta eta lizitazioari hasiera emanda, **proposatzen da Osoko Bilkuraren eskumenak Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea, kontratuaren bukaera arte**, eraginkortasun eta bizkortasun arrazoiengatik, eta 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 22.4. artikuluan xedatutakoaz baliatuz. **Eskuordetze honetatik kanpo gelditzen dira kontratuaren balizko luzapenei buruzko akordioak, eta horiek udalbatza osoak ebatziko ditu.**

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190.eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat harturik, idazkariaren eta kontuhartzailearen aldeko txostenak ikusita, Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2021eko apirilaren 21ean egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

**Aldeko botoak:** Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Garbiñe Marzol Ormazabal, Ander Figuerido Zubiria, Kristina Pelaez Errazkin eta Jose Mari Villanueva Telleria . Aho batez onartu dute.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

## IRIZPENA

**Lehena.-** SPKLren 119. artikuluan xedatutakoaz baliatuta, Tolosako udal eraikinak eta hiri-altzariak garbitzeko zerbitzu-kontratuaren espediente hau premia atzeraezin bati erantzuteko kontratua denez eta interes publikoko arrazoiengatik esleipena azkartu behar denez, kontratazio-espediente hau **presakotzat jotzea**.

**Bigarrena.-** Tolosako udal eraikinak eta hiri-altzariak garbitzeko zerbitzu-kontratuaren espedientea onartzea eta lizitazioari hasiera ematea.



**Hirugarrena.-** Kontratu honen ezaugarriak onartzea:

**Epea:** Bi urteko iraupena izango du kontratua formalizatzen denetik; hala ere, beste hiru urteko luzapena aurreikusten da.

**Balio zenbatetsia:** SPKLaren 101. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, balio zenbatetsia kalkulatzeko indarrean dagoen lan-legeriak aurreikusitako kostuak izan dira kontutan. Gainera zerbitzuen exekuzio materialarengatik eratorritako kostuak eta industria-etekina izan dira kontutan; zehazki, zerbitzua gauzatzeko atxikitako pertsonalaren soldatak eta ordainsariak. Hori guztia kontuan hartuz, kontratuaren balio zenbatetsia **2.694.183,39** eurokoa da.

Lizitazioaren zenbatekoa (BEZ gabe)	891.791,78 €
Aurreikusitako aldaketen zenbatekoa (BEZik gabe)	410.000,00 €
Luzapenak (BEZik gabe)	1.392.391,61 €
<b>BALIO ZENBATETSIA, GUZTIRA</b>	<b>2.694.183,39 €</b>

PRESUPUESTO BASE LICITACIÓN						modificaciones previstas	VALOR ESTIMADO
1 años sin IVA	1 año con IVA	2 años sin IVA	2 años con IVA	5 años sin IVA	5 años con IVA		
442.313,23 €	535.199,00 €	891.791,78	1.079.068,05	2.284.183,39	2.763.861,90	410.000,00	2.694.183,39

Pleguarekin batera, egindako azterketa ekonomikoa jaso da. Azterketa horretatik abiatuta, lizitazioaren erreferentzia ekonomikoa guztiak lortu dira. Azterketa ekonomikoa hori lizitazio hau arautzen duen dokumentazioaren zati banaezina da.

**Lizitazioaren oinarri-aurrekontua: 1.079.068,05 euro**, horietatik, 891.791,78 euro printzipalari dagozkio, eta 187.276,27 euro, BEZari (% 21).

**Aurrekontuaren partida:** Kontratuaren xede diren lanak, eragindako programen udal-aurrekontuaren **227.01 "garbiketa" azpikontzeptuko** udal aurrekontu-partiden kargura finantzatzeko dira. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoei aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partiden kargura. Halaber, hurrengo urteetako aurrekontuetan dagokion zenbatekoa gorde beharko du dagokion partidetan, kontratuak eragingo dituen gastuak ordaindu ahal izateko.

	meses	valor estimado	cuota a pagar (IVA incluido)
2021	6	228.418,34	276.386,19
2022	12	456.836,68	552.772,38
2023	6	228.418,34	276.386,19
	6	228.418,34	276.386,19
2024	6	228.418,34	276.386,19
	6	228.418,34	276.386,19
2025	6	228.418,34	276.386,19
	6	228.418,34	276.386,19
2026	6	228.418,34	276.386,19
modificaciones		410.000,00	
<b>TOTAL</b>	<b>60</b>	<b>2.694.183,39</b>	<b>2.763.861,90</b>

*Aurreikusita dago kontratua 2021eko uztailaren 1ean hasia  
Se estima que el contrato dé comienzo el 1 de julio de 2021*

Udal-eraikin guztietan eta hiri-altzarrietan egindako lanak argi eta garbi bereizteko, lizitazio honen dokumentaziotik bereizi ezin den azterlan ekonomikoa egindako banakapenean xedatutakoaren arabera, eta dagozkion gastuak egotzi ahal izateko, esleipendunak hileroko



faktura bat aurkeztuko du 1etik 25era zenbakitutako eraikin/altzari bakoitzeko. Bertan, mantentze-lanei, kristalei eta jaiegunei (halakorik balego) dagokien gastua banakatuko da.

**Laugarrena.-** Onartzea kontratua gauzatzeko erabiliko diren Administrazio Baldintza Partikularren Plegua eta Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua.

**Bosgarrena.-** Kontratazio-jardunbideari hasiera ematea (jardunbide irekia) eta dagokion iragarkia argitaratzea Euskadiko Kontratatzailearen Profilean eta Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean, lizitatzailleek beren proposamenak aurkez ditzaten. Presakotzat jotzearen ondorioz eta SPKLren 156. artikuluko 3) idatz-zatiko b) letran xedatutakoarekin bat etorritik, enpresa lizitatzaillearen proposamenak bitarteko elektronikoen bitartez soilik aurkeztu ahal izango dira 20 egun naturaleko epean, iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

**Seigarrena.-** Behin kontratazio jardunbidea onartuta eta lizitazioari hasiera emanda, Osoko Bilkuraren eskumenak Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea, kontratuaren bukaera arte, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 22.4. artikuluan xedatutakoaz baliatuz. Eskuordetze honetatik kanpo gelditzen dira kontratuaren balizko luzapenei buruzko akordioak, eta horiek udalbatza osoak ebatziko ditu.

**Zazpigarrena.-** Erabaki horiek jakinaraztea Hirigintza Sailari, Ogasun eta Finantza Administrazio Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Ander Figuerido Zubiria, Aitana Amondarain Esquisabel, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak aho batez **onartu** du Tolosako udal eraikinak eta hiri-altzariak garbitzeko zerbitzu-kontratuaren espedientea presakotzat jotzea, lizitazioa arautuko duen kontratazio jardunbidea eta lizitazioari hasiera ematea.



## **5. ZERBITZUAK EMAN EDO UDAL JARDUERAK BURUTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN ETA BERE ERANSKINEN ALDAKETA ONARTZEA.**

### **Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2021eko apirilaren 21eko irizpena**

#### **3.1. ZERBITZUAK EMAN EDO UDAL JARDUERAK BURUTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA**

**Lehen.**- Artikulu hau onartzea proposatu da:

12. artikulua:

“ Ordenantza honetarako, familia gurasobakartzat hartuko dira baldintza hauek betetzen dituzten familiak:

- Pertsona batek eta haren seme-alabek osatua, Erregistro Zibilean pertsona hori guraso bakartzat inskribatuta duela.
- Alarguntasun-egoeran edo horren egoera baliokide batean dagoena eta pertsona zenduarekin edo desagertuarekin izandako seme-alabek osatzen dutena.
- Guraso batek, guraso-ahala modu eskusiboan duela edo prozesuan dagoela, eta seme-alabek osatzen dutena.
- Pertsona batek eta urtebeterako edo gehiagorako harreran hartuta dituen adingabeek osatzen dutena.
- Seme-alabak ardurapen dituen gurasoak, beste gurasoa urtebetez edo gehiagoz espetxean badago, eta haien seme-alabek osatzen dutena.
- Seme-alabak ardurapen dituen gurasoak genero indarkeria jasan duenean, eta haren seme-alabek osatzen dutena.

Seme-alabek bete beharreko baldintzak guztiak:

- Ezkongai egotea eta 21 urte baino gutxiago izatea; muga hori 26 urtera arte luzatuko da, baldin eta beren adinerako eta titulaziorako egokitzat jotzen diren ikasketak egiten ari badira edo lanpostu bat lortzea xede duten ikasketak egiten ari badira. Desgaitasunen bat (% 33) duten edo lan egiteko ezinduta dauden seme-alabek ez dute adin mugarik.



- Gurasoarekin bititzea. Salbuespen izango dira gurasoarekin bizi ez arren ekonomikoki haren mende dauden seme-alabak.
- Ekonomikoki gurasoaren mende egotea.

Noiz galtzen dute izaera hori?:

- Familia-unitatearen burutza duen pertsona ezkontzen denean edo hark izatezko unitate bat eratzen duenean 2/2003 Legearen arabera.
- Guraso bakarreko familiaren aitortpena lortzeko eskatzen diren baldintzetako edozein betetzeari uzten zaionean.”

**Bigarrena.-** Bestalde, artikulua hau onartzea proposatu da:

13. artikulua: “Ordenantza honetarako, bizikidetzaren unitatea definitzeko, Eusko Jaurlaritzak Unibertsitatez kanpoko mailetakoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta laguntzen prozedurarako argitaratzen duen definizioa erabiliko da.

### **3.1.6 ERANSKINA: MUSIKA ESKOLA**

Prezio publikoen kopurua ez aldatzea proposatu da.

Bestalde, Musika Eskolako zuzendariak proposamenak bidali ditu eta 3.1.6 eranskina honela geratzea proposatu da:

#### 3.1.6. Eranskina. Musika Eskola

MUSIKA ESKOLA ZERBITZUA	SERVICIO ESCUELA DE MUSICA	OROKORRA / GENERAL 2020-2021	TARIFA TOLOSA 2020-2021	OROKORRA / GENERAL 2021-2022	TARIFA TOLOSA 2021-2022
A) Musika eskola:	Escuela de Música:				
1.maila	1º nivel	285,36	190,91	285,36	190,91
2.maila	2º nivel	854,04	566,37	854,04	566,37
2.maila, solfeorik gabe	2º nivel sin solfeo		377,77	565,63	377,77
3.maila	3º nivel	565,63			
3.maila osagarririk gabe	3º nivel sin complementaria	1.023,62	684,45	1.023,62	684,45
4.maila	4º nivel	711,87	474,24	711,87	474,24
a) Musika taldea	a) Conjunto musical	142,17	95,46	142,17	95,46
b) instrumentua + musika taldea	b) instrumento + conjunto musical	565,63	377,77	565,63	377,77
Ikasle errefortzatuak	Alumnos reforzados	1.308,98	874,35	1.308,98	874,35
Ikasgai teorikoak	Asignaturas teóricas	285,36	190,91	285,36	190,91
Bigarren instrumentua	Segundo instrumento	285,36	190,91	285,36	190,91

1. TOLOSA tarifak matrikulazio epearen amaiera baino bi hilabete lehenagotik Tolosan erroldatuta dauden herritarrei aplikatuko zaizkie (irailaren 30a).





Tolosaldean errolatutakoei ere aplikatuko zaizkie, betiere jatorrizko udalek tolosarrei ere beren herritarrei aplikatzen dizkieten tarifak aplikatzen badizkiete Musika Eskolari dagokion eranskin honetako zerbitzu guztietan.

2. Prezio publiko honen sortzapena matrikula egiterakoan, edo berritze automatikoarekin, sortuko da.

Aurreko ikasturtea amaitu aurretik, hurrengo ikasturterako matrikulazio epealdia zabalduko da. Behin matrikulatuz gero, ikaslea hurrengo ikasturteetarako matrikulatuta dagoela ulertuko da, ikasleak UDATEN, dagokion formularioa bete eta kontrakorik jakinarazi ezean. Ez jarraitzeko jakinarazpena aurreko ikasturtearen amaieraren aurretik egin behar da, hau da, maiatzaren 31ren aurretik. Hala egiten ez badu, Udalak dagokion matrikularen ordainarazpena jaulkiko dio ikasleari.

Matrikulatzeko, beharrezkoa izango da aurreko ikasturteetako kuota guztiak ordainduta edukitzea.

### 3. ORDAINKETA.

Matrikularen zenbateko osoa hiru alditan ordainduko da:

a) Aurreko urteetako ikasleak, % 60 matrikula egiteko unean, edo berritze automatikoarekin batera, uztailean (1. kuota).

Ikasle berriak eta bakanteen zain dauden ikasleak, aldiz, irailean.

b) % 20, azaroaren 15etik 30era (2. kuota).

c) % 20, otsailaren 1etik 15era (3. kuota).

Matrikula deuseztatzeko eskaera egin daiteke arrazoi hauengatik, baina edozein dela ere arrazoia, prezio publikoaren % 20 ez da itzuliko.

Ikasleak ordainketak bertan behera uzteko edo matrikularen itzulpena eskatzeko arrazoiak:

- Gaixotasuna, betiere medikuaren egiaztagiriarekin, musika ikasketak jarraitzeko ezintasun larria duela ziurtatzen duena.
- Haurdunaldia, medikuak baloratutako arriskua ikusita.
- Amatasun edo aitatasun baja.
- Ikasketa arautu edo/eta homologatuen derrigorrezko lekualdaketak eta aldaketak, beti ere behar diren dokumentuekin egiaztatzen bada.
- Ezohiko egoera lan eremuan (lekualdaketak, kaleratzeak...) zein pertsonalean, beti ere behar diren dokumentuekin egiaztatzen bada.

Ikasleak ordainketak bertan behera uzteko edo matrikularen itzulketa eskatzeko epeak:

- 1. kuotaren itzulketa ikasturtea hasi aurretik eskatu beharko da.



- 2. eta 3. kuota ez ordaintzeko eskaera, bakoitzaren ordainketa epearen aurreko hilabetean, hau da: urriaren 15a eta urtarrilaren 1a.

Salbuespen gisa, kontuan izango dira epez kanpoko baja eskaerak, baldin eta eskatzaileak klase bat bera ere ez duela jaso ziurtatzen bada.

Matrikularen lehen ordainketa osoa soilik itzuliko da matrikula deuseztatzeko arrazoia Udal Musika Eskolari egotz dakiokenean.

Arrazoi horiek direla-eta egiten diren eskaerak Udal Musika Eskolako Zuzendaritzak aztertu eta bidezko txostena emango du kuoten itzulpena edo bertan behera uztea baimendu edo ez proposatuz, eta alkateak ebatziko ditu.

#### 4. PREZIO JAITSIERA

##### 4.1 Familia ugariari eta familia gurasobakarrei % 50 murriztuko zaie prezio publikoa.

Familia gurasobakarren kasuan, subjektu pasiboak urtero eskatu beharko du prezio jaitsiera.

Familia ugariaren murrizketaz gozatzeko, subjektu pasiboak eskatu egin behar du, eta, aldi berean, honako baldintza hauek bete behar ditu:

- Tolosaldean erroldatuta egotea.
- Matrikulatzen den ikasturtearen aurreko maiatzaren 31n familia ugariaren izaera edukitzea.
- Tramiteak errazteko, eskaera ez da urtero egin beharko.

Hala eta guztiz ere, subjektu pasiboa behartuta dago prezioaren murrizketa horren baldintza eta betekizunen inguruan gerta daitezkeen aldaketen berri ematera, eta aldaketa horiek, nolahi ere, gertatu diren ekitaldian ez baizik eta hurrengoan izango dute eragina.

Administrazioak beretzat gordetzen du prezio jaitsiera onartu eta emateko behar diren baldintzak betetzen diren edo ez ofizioz egiaztatzeko eskubidea, eta subjektu pasiboak prezio jaitsiera eskuratzeko eskubidea duela egiaztatzeko behar diren agiri guztiak aurkez daitezkeen eskatzekoa ere bai.

##### 4.2 Eskaera egiten dutenei, baldin eta Tolosan erroldatuta badaude, Tolosako Udalarekin zorrik ez badute eta Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak eskaintzen dituen prestazio baterako baldintza ekonomikoak betetzen baditu, % 80 murriztuko zaie prezio publikoa.

##### 4.3. Eskaera egiten dutenei, bizikidetzeta unitateak baldintza hauek betetzen baditu:

- ondarea ez izatea 42.900 euro baino handiagoa. Arau hau aplikatzeko garaian, ez dira aintzat hartuko honako ondasun higiezin hauek: ohiko bizilekua, garajeak (gehienez ere bi garaje) eta familia unitateko kideren batek bere konturako jarduera bat gauzatzeko erabiltzen duen lokala.



Behin baldintzak beteta, prezio publikoaren jaitsiera bizikidetza unitateko kideen diru-sarreraren arabera kalkulatu da:

Bizikidetza unitateko kide kopurua	0-13.300 €	13.301-15.960 €	15.961-18.620 €	15.621 €-21.280 €
1-2	% 80	% 60	% 50	% 0
3	% 90	% 70	% 60	% 25
4 edo gehiago	% 95	% 90	% 90	% 60

Atal honetako prezio publikoen jaitsiera lortzeko, bizikidetza unitateko kideen informazio fiskala aurkeztu beharko dute.

4.1., 4.2 eta 4.3 ataletako jaitsierak lortzeko baldintzak betetzen badituzte, portzentaje handiena duen jaitsiera aplikatuko zaie, hau da, eskatzaileari onura handiena sortzen dion jaitsiera.

### **3.1.7. ERANSKINA: KULTUR TAILERRAK**

Prezio publikoen zenbatekoa ez aldatzea proposatu dute.

Horrez gain, gaur egun, 2. eta 3. artikulua honako hau diote:

*2.- Ikastaroak hasi aurretik matrikulazio epealdia zabalduko da. Ikasturte osoko iraupena dutenetan, ordea, behin matrikulatuz gero, ikaslea hurrengo ikasturteetarako matrikulatuta dagoela ulertuko da, ikasleak UDATEn, dagokion formularioa bete eta kontrakorik jakinarazi ezean. Ez jarraitzeko jakinarazpena aurreko ikasturtearen amaieraren aurretik egin behar da, hau da, ekainaren 30aren aurretik. Hala egiten ez badu, udalak dagokion matrikularen ordainarazpena jaulkiko dio ikasleari.*

*3.- Ordainarazpena matrikula egiterakoan edo berritze automatikoarekin batera sortuko da. Matrikula egiteko nahitaezkoa da aurreko ikasturteetako kuota guztiak ordainduta edukitzea.*

2. artikulua kentzea eta 3. artikuluko “edo berritze automatikoarekin batera” kentzea proposatu dute.

Azkenik, 7. artikulua honela geratzea proposatu dute:

### **7.- PREZIO PUBLIKOEN JAITSIERA**

7.1. Familia ugariak eta guraso bakarrek % 50eko jaitsiera izango dute.

Familia gurasobakarren kasuan, subjektu pasiboak urtero eskatu beharko du prezio jaitsiera.



Familia ugariaren murrizketaz gozatzeko, subjektu pasiboak eskatu egin behar du, eta, aldi berean, honako baldintza hauek bete behar ditu:

- Tolosaldean erroldatuta egotea.
- Matrikulatzen den ikasturtearen aurreko ekainaren 30ean familia ugariaren izaera edukitzea.
- Tramiteak errazteko, eskaera ez da urtero egin beharko.

Hala eta guztiz ere, subjektu pasiboa behartuta dago prezio publikoaren murrizketa horren baldintza eta betekizunen inguruan gerta daitezkeen aldaketen berri ematera, eta aldaketa horiek nolani ere, gertatu diren ekitaldian ez baizik eta hurrengoan izango dute eragina.

Administrazioak beretzat gordetzen du prezio publikoaren jaitsiera onartu eta emateko behar diren baldintzak betetzen diren ala ez ofizioz egiaztatzeko eskubidea, eta subjektu pasiboak prezio publikoaren jaitsiera eskuratzeko eskubidea duela egiaztatzeko behar diren agiri guztiak aurkez daitezzen eskatzekoa ere bai.

7.2. Eskaera egiten dutenei, baldin eta Tolosan erroldatuta badaude, Tolosako udalarekin zorrik ez badute eta Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak eskaintzen dituen prestazio baterako baldintza ekonomikoak betetzen baditu, % 80 murriztuko zaie prezio publikoa.

7.3. Eskaera egiten dutenei, bizikidetzaren unitateak baldintza hauek betetzen baditu:

- ondarea ez izatea 42.900 euro baino handiagoa. Arau hau aplikatzeko garaian, ez dira aintzat hartuko honako ondasun higiezin hauek: ohiko bizilekua, garajeak (gehienez ere bi garaje) eta familia unitateko kideren batek bere konturako jarduera bat gauzatzeko erabiltzen duen lokala.

Behin baldintzak beteta, prezio publikoaren jaitsiera bizikidetzaren unitateko kideen diru-sarreraren arabera kalkulatu da:

Bizikidetzaren unitateko kide kopurua	0-13.300 €	13.301-15.960 €	15.961-18.620 €	15.621 €-21.280 €
1-2	% 80	% 60	% 50	% 0
3	% 90	% 70	% 60	% 25
4 edo gehiago	% 95	% 90	% 90	% 60

Atal honetako prezio publikoaren jaitsiera lortzeko, bizikidetzaren unitateko kideen informazio fiskala aurkeztu beharko dute.

7.1., 7.2 eta 7.3 ataletako jaitsierak lortzeko baldintzak betetzen badituzte, portzentaje handiena duen jaitsiera aplikatu zaie, hau da, eskatzaileari onura handiena sortzen dion jaitsiera.



**3.1.8. ERANSKINA: EUSKALTEGIA**

EUSKALTEGIA			2021-2022
<b>1. Egunean 2,5 ordu, astean 10, 9 hilabete; 344 ordu.</b>			
<b>1. 2,5 horas al día, 10 a la semana, 9 meses; 344 horas.</b>			
Matrikula: (orduak*1,22)		Matricula (horas*1,22)	419,68
A1 - A2 - B1 mailak	Materiala:	Niveles A1 - A2 y B1	(*)
B2 maila		Nivel B2	34
C1 maila		Nivel C1	47
<b>2. Egunean 2 ordu, astean 8, 9 hilabete. 274 ordu.</b>			
<b>2. Dos horas al día, 8 a la semana, 9 meses. 274 horas.</b>			
Matrikula (orduak*1,22)		Matricula (horas*1,22)	334,28€
A1 - A2 - B1 mailak	Materiala:	Niveles A1 - A2 y B1	(*)
B2 maila		Nivel B2	27
C1 maila		Nivel C1	46
<b>3. Astean 6 ordu, 9 hilabete. 206 ordu.</b>			
<b>3. 6 horas a la semana, 9 meses. 206 horas.</b>			
Matrikula (orduak*1,22)		Matricula (horas*1,22)	251,32€
A1 - A2 - B1 mailak	Materiala:	Niveles A1 - A2 y B1	(*)
B2 - alfabetatzen		Nivel B2 - alfabetización	19
C1 maila		Nivel C1	32
C2 maila		Nivel C2	175
<b>4. Egunean 2,5 ordu, astean 5 ordu, 9 meses. 170 ordu.</b>			
<b>4. 2,5 horas al día, 5 horas a la semana, 9 hilabete. 170 horas.</b>			
Matrikula (orduak*1,22)		Matricula (horas*1,22)	207,4€
Materiala, HABEren azterketak prestatzeko taldeak: Material, grupos para la preparación de exámenes HABE :			
A1 - A2 - B1 mailak		Niveles A1 - A2 y B1	(*)
B2 - alfabetatzen		Nivel B2 - alfabetización	16
C1 maila		Nivel C1	27
C2 maila		Nivel C2	146
<b>6. Autoikaskuntza. 190 ordu.</b>			
<b>6. Autoaprendizaj.</b>			
A1-A2-B1 mailak	Matrikula (orduak*3,27)	Curso completo, matrícula en niveles A1-A2-B1	621,3€
B2 - C1 - C2 mailak	Matrikula (orduak*3,46)	Niveles B2 - C1 - C2	657,4€

(\*) Ikasleak bere kabuz erosi beharko du materiala. (\*) El/la alumno/a deberá adquirir el material por su cuenta.

ESKUA63d0247-331a-4131-b69b-d60493052211



## **APLIKAZIO ARAUAK**

1.- Udalaren esku dago tarifatu ez diren ikastaroak antolatzea eta dagozkien prezio publikoak ezartzea.

2.- Ordainarazpena matrikula egiterakoan sortuko da. Matrikulatzeko ezinbesteko baldintza da aurrez ordainduta edukitzea aurreko urteetako kuota guztiak.

3.- **ORDAINKETA EPEAK:**

3.1 Ikaslea **Tolosan erroldatuta** badago matrikula egin baino 15 egun lehenago gutxienez:

3.1.1 Ikasturte arrunta bi epetan ordainduko da:

- Lehen epea: azaroaren 15a baino lehen: Aurrez aurreko eskoletan ikasleek matrikularen % 25 (B2 arte), % 50 (C1) edo % 75 (C2) ordaindu beharko dute. Autoikaskuntzaren kasuan, prezio publikoaren % 25 ordaindu behar da (1. kuota).
- Bigarren epea: ekainaren 30a baino lehen, falta den portzentaje (2. kuota).

3.2 Ikaslea Tolosan **erroldatuta ez badago**:

3.2.1. Ikasturte arrunta bi erataro ordaindu ahal izango da:

a) Epe bakarrean: matrikula osoa eta, hala badagokio, materiala, eskolak hasi eta astebeteko epean beranduenik.

b) Bi epetan:

- Lehen epea: azaroaren 15a baino lehen, matrikularen 2 heren eta, hala badagokio, materiala.
- Bigarren epea: abenduaren 15a baino lehen, matrikularen azken herena.

3.2.2. Autoikaskuntzako ikastaroa bi erataro ordaindu ahal izango da:

- Epe bakarrean: prezio publiko osoa eskolak hasi eta astebeteko epean beranduenik.
- Hiru epetan:
  - Lehen epea: azaroaren 15a baino lehen, prezio publikoaren erdia.
  - Bigarren epea: abenduaren 15a baino lehen, prezio publikoaren laurdena.
  - Hirugarren epea: urtarrilaren 15a baino lehen, prezio publikoaren azken laurdena.



3.3 Alkateak gehitu eta luza ditzake ordainketa egiteko epeak kasu berezietan, Euskara eta Hezkuntza Sailaren eskariz.

3.4 Gainontzeko ikastaroak epe bakarrean eta ikastaroa hasi aurretik ordaindu beharko dira.

3.5 Matrikula egiterakoan ikasleek kontu korrontea eman beharko dute ordainketa helbideratzeko.

3.6 Aitzol Euskaltegian dauden HABEren hitzarmenpeko ikasleen matrikulen ordainketa:

3.6.1 HABEK IVAP, IRALE, JUSTIZIA, LANBIDE eta OSAKIDETZArekin hitzarmena dauka erakunde horietako langileek euskara ikas dezaten inolako gasturik izan gabe. Hitzarmen horren arabera, herri erakundeetako langileen matrikula gastuak ordaintzeaz gain, euskalduntze-prozesuan euskaltegiek asistentzia datuak bildu eta HABEra bidaltzeagatiko zerbitzua ere finantzatzen da. HABEK hitzarmenpeko ikasleen matrikulak eta kudeaketa gastuak ordaintzeko lau epe ezarri ditu:

1. 1. ordainketa: abenduan (urritik ekainerako ikastaroetan hasi diren ikasleen matrikulen % 30).
2. 2. ordainketa: otsailean (urritik ekainerako ikastaroetan izena eman duten ikasleen matrikulen % 70).
3. 3. ordainketa: apirilean (urtarriletik ekainera ikastaroetan egon diren Segurtasun Saileko ikasleen matrikulen % 100).
4. 4. ordainketa: urrian (udako ikastaroetan egon diren administrazioetako ikasle solteen matrikulak eta ikasturte osoaren kitapena/kudeaketa gastuak).

Ikasle guztien aukera-eskubidea bermatzeko asmoz, HABEK urtero ikastaro mota bakoitzaren prezio publikoak ezartzen ditu agindu baten bidez. Agindu horretan HABEren hitzarmenpeko ikasleen matrikula eta kudeaketa gastuengatiko prezio publikoen tarifak zehazten dira. Udalak goian aipatutako ordainketa epeen arabera dagozkion ordainagiriak sortu behar ditu eta HABEra bidali ordainketa egin dezaten.

3.6.2 HABEko hitzarmenpeko ikasleen materiala ikasle bakoitzak ordainduko du ikasturte hasieran.

**4. Baja eskatzeko eskubidea:**

Jarraian aipatzen direnei buruzko erabakia alkatea edo zinegotzi delegatuari dagokio; horretarako, Euskara teknikariak proposamena egingo du eta Kontuhartzaitzak txostena egingo du.



4.1 Tolosan erroldatutako ikasleek prezio publikoen % 25, % 50 edo % 75 ordaintzen dute azaroan. Nahitaezko arrazoiren\* batek eraginda ikasleren bat baja bada ikasturtean zehar, bigarren kuota ez ordaintzeko eskubidea izango du, betiere:

- Baja hartu arte % 85eko asistentzia izan badu.
- Errendimendu egokia izan badu.

Horrelako kasuetan, euskaltegiko irakasleak egindako eta euskaltegiko zuzendariak sinatutako txosten baten bidez egiaztatuko da baja den ikasleak % 85eko asistentzia eta errendimendu egokia izan dituela.

4.2 Tolosan erroldatuta ez dauden ikasleek bigarren kuota ez ordaintzeko eskubidea izango dute, baldin eta azaroaren 30 arteko bajak badira, nahitaezko arrazoiren\* batek eragindako bajak badira, betiere:

- Baja hartu arte % 85eko asistentzia izan badute.
- Errendimendu egokia izan badute.

Horrelako kasuetan, euskaltegiko irakasleak egindako eta euskaltegiko zuzendariak sinatutako txosten baten bidez egiaztatuko da baja den ikasleak % 85eko asistentzia eta errendimendu egokia izan dituela.

Nahitaezko arrazoiak\*:

- a. Eskolara joateko ezintasuna, betiere horixe adierazten duen medikuaren egiaztagiria badago.
- b. Ezohiko egoera lan eremuan (lekualdaketak, kaleratzeak...), betiere behar diren dokumentuekin egiaztatzen bada.

4.3 Aurrez aurreko eskoletan ikasle tolosarrek matrikularen % 25 (B2 arte), % 50 (C1) edo % 75 (C2) pagatu beharko dute ikasturte hasieran. Ordenantza fiskal hauetan agertzen diren baldintzak bete ezean, falta den/zaien portzentaje kobratuko zaie ikasturte amaiera aldera edo/eta ikastaroa utzitakoan.

4.4 Autoikaskuntzako ikasle tolosarrek matrikularen % 25 pagatu beharko dute ikasturte hasieran. Ordenantza fiskal hauetan agertzen diren baldintzak bete ezean, falta den %75a kobratuko zaie ikasturte amaiera aldera edo/eta ikastaroa uztean.

5. Matrikularik ez dute pagatu beharko, matrikula egin baino 15 egun lehenago Tolosan erroldatuta egoteaz gain, Tolosako Udalarekin zorrik ez badute eta jarraian aipatutako beste baldintza hauetakoren bat betetzen dutenek:

- a) LANBIDEk emandako Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren (LAGS/SMI)





ziurtagiria izatea.

- b) Familia ugariaren txartela eguneraturik edukitzea matrikula egiterakoan edo familia gurasobakar izatea.
- c) Diru-sarrerak eta Gizarteratzea Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoak eskuratzeko baldintza ekonomikoak betetzea. Kasu horretan, materialaren kopurua ere ez dute ordaindu beharko.

Atal honetan jasotakoaz baliatu nahi dutenek Udalean aurkeztu beharko dituzte eskatutako datu eta dokumentu guztiak, eta horiek egiaztatzeko egin behar diren azterketa guztiak onartu beharko dituzte.

Datuak eta dokumentuak urteko edozein momentutan azter daitezke.

**6.** Prezio publikoa portzentaje hauetan murriztuko zaie eskaera egiten dutenei, beti ere Tolosan erroldatuta badaude, Udalarekin zorrik ez badute eta bizikidetzaren unitateak baldintza hauek betetzen baditu:

- ondarea ez izatea 42.900 euro baino handiagoa. Arau hau aplikatzerako garaian, ez dira aintzat hartuko honako ondasun higiezin hauek: ohiko bizilekua, garajeak (gehenez ere bi garaje) eta familia unitateko kideren batek bere konturako jarduera bat gauzatzeko erabiltzen duen lokala.

Behin baldintzak beteta, prezio publikoaren jaitsiera bizikidetzaren unitateko kideen diru-sarreraren arabera kalkulatu da:

Bizikidetzaren unitateko kide kopurua	0-13.300 €	13.301-15.960 €	15.961-18.620 €	15.621 €-21.280 €
1-2	% 80	% 60	% 50	% 0
3	% 90	% 70	% 60	% 25
4 edo gehiago	% 95	% 90	% 90	% 60

Ataleko prezio publikoen jaitsiera lortzeko, bizikidetzaren unitateko kideen informazio fiskala aurkeztu beharko dute.

5. eta 6. ataletako jaitsierak lortzeko baldintzak betetzen badituzte, portzentaje handiena duen jaitsiera aplikatuko zaie, hau da, eskatzaileari onura handiena sortzen dion jaitsiera.

Hala ere, hurrengo ikasturteetan baldintza beretan matrikulatu ahal izateko, hau da, 5. eta 6. puntuetako prezio jaitsierak aplikatzeko, baldintza hauek bete beharko dituzte:

\*Aurrez aurreko ikasleak: ikastaroa amaitu eta ikasturtean gutxienik % 85eko asistentzia izatea. Maila bakoitzari dagozkion azterketa guztiak egin eta ikaslearen errendimenduaz irakaslearen aldeko agiri sinatua ekartzea. Eskolara joan ez izana zurrizteko, gaixotasun-ziurtagiriak aurkeztea.

ESKUA63d0247-331a-4131-b69b-d60493052211



\* Autoikaskuntzako ikasleak: ikastaroa amaitu eta aurrez aurreko zein autoikaskuntzak dituen ataletan % 85eko parte hartzea izatea. Maila bakoitzari dagozkion azterketa guztiak egin eta ikaslearen errendimenduaz irakaslearen aldeko agiri sinatua ekartzea. Ikastaroa bukatu ez izana zuzitzeko, gaixotasun-ziurtagiriak aurkeztea.

Baldintza horiek euskaltegiko zuzendariak sinatutako agirien bidez zuritu beharko ditu.

7. taulan azaltzen diren ikastaroak eskainiko dira, beti ere, aldez aurretik HABEK onartutakoak badira.

Gaia aztertu ondoren bozkatu egin dute. Bozketaren emaitza hau izan da:

**Aldeko botoak:** Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Garbiñe Marzol Ormazabal, Kristina Pelaez Errazkin, Ander Figuerido Zubiria eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Hau dela eta, batzordeak

### DIKTAMINATU DU

**Lehena.-** Prezio publikoen ordenantza aldatzea goian aipatutako aldaketekin.

**Bigarrena.-** Osoko Bilkuraren onarpenaren ondoren, erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean erabakia.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

**Abstentzioa:** Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Ander Figuerido Zubiria, Aitana Amondarain Esquisabel, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla



Beraz, udalbatzak, gehiengoz, **onartu** du zerbitzuak eman edo udal jarduerak burutzeagatiko prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren eta bere eranskinen aldaketa.

**6. KREDITU ALDAKETA HONEN BERRI EMATEA:**

**2021/554 ALKATETZA DEKRETUA, 1/2021 KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEARI DAGOKIONA.**

Begoña Tolosa Mendia, Ogasuneko zinegotzi delegatuak azalpenak eman ditu.

2021/554 Alkatetza Dekretuak honela dio:

*Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak*

*Ikusita Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu txertaketen modalitatekoa, 2021-KALD-000001-00 zenbakiduna,*

*Ikusita Kontu-hartzailearen txostena eta onarpen proposamena.*

*21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 32.6. artikulua bitartez, kreditu txertaketa onartzeko ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau*

**EBATZI DUT**

**Lehenengoa.**- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu txertaketen modalitatekoa, 2021-KALD-000001-00 zenbakiduna, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

**GASTUAK**

<b>Kapitulua</b>	<b>Izena</b>	<b>Zenbatekoa</b>
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	180.540,01
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	292.347,02
6	INBERTSIO ERREALAK	1.957.549,08
<b>TXERTATUTAKO GERAKINAK GUZTIRA</b>		<b>2.430.436,11</b>

ESKUA63d0247-331a-4131-b69b-d60493052211



### FINANTZAKETA

<b>Kapitulua</b>	<b>Izena</b>	<b>Zenbatekoa</b>
8	FINANTZA AKTIBOAK	2.430.436,11
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>		<b>2.430.436,11</b>

**Bigarrena.**- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

Alkatea

Idazkaria

Olatz Peon Ormazabal

Begoña Garmendia Vázquez

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

### **7. IURRAMENDI EGOITZA ERAKUNDE AUTONOMOAREN DESEGITEA BEHIN BETIKO ONARTU IZANAREN BERRI EMATEA.**

Udalbatzarrak, 2020ko irailaren 24an egindako Osoko Bilkuran, hasierako onarpena eman zion lurramendi Egoitza Erakunde Autonomoaren desegiteari.

Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen Legearen 49.b artikulua xedatzen duena betez, informazio publikorako ikusgai jarri zen hogeita hamar egunez, iragarpen hau Gipuzkoako Aldizari ofizialean argitaratua izan zen eta hurrengo egunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Hasierako onespeneko iragarkia ondoko hedabideetan argitaratu da:

- Web orrian eta Gardentasun atarian.
- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2020ko urriaren 21ean, 201. zenbakian.
- Iragarkia taulan, 2020ko urriaren 7tik azaroaren 26ra arte.

Informazio publikoko epean ez da inolako iradokizun edo erreklamaziorik aurkeztu, beraz, lurramendi Egoitza Erakunde Autonomoaren desegitea behin betiko onartutzat ematen da.



Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

**8. COVID-19AREN ONDORIOZKO KONFINAMENDU-KASUETAN, OSOKO BILKURETAN ETA GAINONTZEKO ORGANO KOLEGIATUETAN TOKIKO ORDEZKARIEN PARTE-HARTZE TELEMATIKOA AHALBIDETZEKO ERREGELAMENDUA BEHIN BETIKO ONARTU IZANAREN BERRI EMATEA.**

Udalbatzarrak, 2020ko urriaren 29an egindako Osoko Bilkuran, hasierako onarpena eman zion COVID-19aren ondoriozko konfinamendu-kasuetan, osoko bilkuretan eta gainontzeko organo kolegiatuetan tokiko ordezkariaren parte-hartze telematikoa ahalbidetzeko erregelamenduari.

Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen Legearen 49.b artikulua xedatzen duena betez, informazio publikorako ikusgai jarri zen hogeita hamar egunez, iragarpen hau Gipuzkoako Aldizari ofizialean argitaratua izan zen eta hurrengo egunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Hasierako onespenerako iragarkia ondoko hedabideetan argitaratu da:

- Web orrian eta Gardentasun atarian.
- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2020ko azaroaren 20an, 223. zenbakian.
- Iragarkia taulan, 2020ko azaroaren 9tik abenduaren 30era arte.

Informazio publikoko epean ez da inolako iradokizun edo erreklamaziorik aurkeztu, beraz, behin betikoz onartutzat ematen da.

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

**9. UDALBATZAKO KIDEEEN INFORMAZIO PUBLIKOKO ESKUBIDEA ARAUTZEN DUEN ERREGELAMENDUA BEHIN BETIKO ONARTU IZANAREN BERRI EMATEA.**

Udalbatzarrak, 2020ko martxoaren 5ean egindako Osoko Bilkuran, hasierako onarpena eman zion Udalbatzako kideen informazio publikoko eskubidea arautzen duen erregelamenduari.

Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen Legearen 49.b artikulua xedatzen duena betez, informazio publikorako ikusgai jarri zen hogeita hamar egunez, iragarpen hau

ESKUA63d0247-331a-4131-b69b-d60493052211



Gipuzkoako Aldizari ofizialean argitaratua izan zen eta hurrengo egunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Hasierako onespeneko iragarkia ondoko hedabideetan argitaratu da:

- Web orrian eta Gardentasun atarian.
- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2020ko maiatzaren 7an, 84. zenbakian.
- Iragarkia taulan, 2020ko apirilaren 30etik ekainaren 26ra arte.

Informazio publikoko epean ez da inolako iradokizun edo erreklamaziorik aurkeztu, beraz, behin betikoz onartutzat ematen da.

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

#### **10. AGARAMUNDU 7KO ARAUBIDE OROKORREKO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN OINARRI ARAUTZAILEEN ALDAKETA BEHIN BETIKO ONARTU IZANAREN BERRI EMATEA.**

Udalbatzarrak, 2021eko urtarrilaren 28an egindako Osoko Bilkuran, hasierako onarpena eman zion Agaramundu 7ko eraikineko araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzetako oinarri arautzaileen aldaketari.

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legearen 49.b artikulua xedatzen duena betez, onarpen hori informazio publikorako ikusgai jarri da hogeita hamar lanegunez, iragarpen hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Hasierako onespeneko iragarkia ondoko hedabideetan argitaratu da:

- Web orrian
- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2020ko azaroaren 20an, 223. zenbakian.
- Iragarkia taulan, 2021eko otsailaren 12tik martxoaren 26ra arte.

Informazio publikoko epean ez da inolako iradokizun edo erreklamaziorik aurkeztu, beraz, behin betikoz onartutzat ematen da.

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

ESKUA63d0247-331a-4131-b69b-d60493052211



## **11.EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOAK, GOI TENTSIOKO LINEAREN PROIEKTUARI BURUZKOAK**

Atal honetan bi bozketa egin dira:

1. 400 KV Goi Tentsioko linearen proiektuari desadostasun azaltzea.
2. "Goi Tentsioko lineariz ez" plataformari atxikitzea.

### **400 KV Goi Tentsioko linearen proiektuari desadostasun azaltzea**

Moziok honela dio:

*"Arrazoen azalpena*

*Azterketa Eremuan dauden Udaletan, Estatuko Ingurumen idazkaritzaren ingurumen ebaluazio orokorraren Ordezkariordeztatik, Trantsizio EKologikoaren Ministeriotik, jakinarazpen bat jaso zen 2019ko udaberrian, "Itsasoko 400KW azpiestazio elektrikoan, joan etorriko 400KWko Linea, zirkuitu bikoitza, Castejon Muruarte eta Itsaso-Orkoien (Nafarroa, Euskal Autonomi Erkidegoa) 1 eta 2 linea elektriko berrindartzea" proiektuari dagokion ingurumen inpaktuaren azterketak izango duen eragina eta sustatzailea Red Eléctrica de España S.A. da.*

*Proiektu hau zorretan zegoen eta aurreko biak ordezkatzera dator. Vitoria-Gasteiz/ Castejon- Muruartera zihoan lehen proiektua atzera bota zen, 2010eko azaroaren 12ko BOE 274an jasotzen den bezala, ingurumenari eragiten zizkion kalteagatik eta proiektu hark gizartean sortu zuen kontrako jarreragatik. Bigarren proiektua 2011ko abuztuan iritsi zen kaltetutako udaletara. 2011ko abenduaren 17an, Udal hautetsien Batzarrak Estatuko, Nafarroako eta Erkidegoko gobernuie eskatu zien, proiektua bertan behera uzteko, proiektuaren kaltea pairatuko luketen 220 udal eta kontzejuk onartutako mozioei oihartzun emanaz. 2013ko maiatzaren 15ean, Industria eta Energia Ministerioari, garraio elektriko azpiegitura berriak bertan behera uzteko eskatu zioten 174 alkatek eta uztailaren 19an, herritarrek, udalek eta kontzejuek sinatutako 14.000 alegazio aurkeztu ziren.*

*Horregatik, herritarren oposizioa sortu eta aurreko bi proiektuak bertan behera uztea ekarri zuten arrazoi berdinak, intentsitate berdinarekin edo handiagoarekin mantentzen dira, gaur egungoa kontsultara bideratzen ari den honetan. Proiektu honek lehenengo aldiz jasotzen du proiektua justifikatzeko arrazoi moduan, "Frantziara esportatzeko programa altuko agertokia".*

*Proiektu honek, pasatzen den lurraldeen hornikuntzan inolako justifikaziorik ez duenez eta Nafarroako eta Gipuzkoako lurralde zati bati oso modu negatiboan eragingo dio, paisaian, ingurumenean eta herritarren osasunean. Aldi berean ez da bateragarria lurralde antolamendurekin eta kaltetutako herrien etorkizuneko garapen aurreikuspenekin eta gainera ehun produktiboan, turismoan eta lehen sektorean izugarritzko kaltea ekarriko du*



Udal honek ONARTZEN du:

1. *-Gipuzkoako Itsasoko azpi-estazioa eta Nafarroako Castejon-Muruarte linearekin, Tafalla parean, lotu nahi dituen 400 KV Goi Tentsioko Linearen proiektuari erabateko desadostasuna azaltzea, gizartearen interes orokorrerako inolako justifikaziorik ez izateagatik.*
2. *Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Gipuzkoako Batzar Nagusiei, Euskal Autonomiako Erkidegoko Gobernuari eta Legebiltzarrari eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari, proiektuari ezezkoa eman diezaioten eskatzea, paisaian, ekonomian eta ingurumenean izango dituen kalteengatik jasangaitza delako eta potentzialki kaltetutako herrietako gune gakoetan izango duen afekzioa kontuan hartuta*
3. *Akordio hau Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioari eta Gipuzkoa Foru Aldundiari, Gipuzkoako Batzar Nagusiari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuari eta Legebiltzarrari bidaltzeaz gain komunikabideen bitartez publiko egitea.*

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Ander Figuerido Zubiria, Aitana Amondarain Esquisabel, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla

**Aurkako botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak, gehiengoz, **ez du onartu** EH BILDU udal taldeak aurkeztutako mozioa, goi tentsioko linearen proiektuari buruzkoa.

### **Goi Tentsioko linearik ez” plataformari atxikitzea.**

Mozioak honela dio:

*“Goi-tentsioko linearen lehen proiektua, Vitoria-Gasteiz/Castejón-Muruarte, 2007an aurkeztu zen, 2008ko apirilaren 27an (Lurraren Eguna), Goi Tentsioko Linearik Ez Plataforma sortu zen. Tartean ziren udalerriek parte hartu zuten, eta proiektua ezeztatzeko lan egin zuten, lortu arte. Hala jaso zuen 2010eko azaroaren 12ko BOEk, "ingurumenean duen eraginagatik eta gizarte-oposizioagatik".*





201In, Red Eléctrica de España S.A.k Itsaso/Deikazteluko bigarren proiektua aurkeztu zuen, irailaren 17an, Berriozarren. Ukitutako herrien ordezkarien batzarrak erabaki zuen Plataforma berriro martxan jartzea. 220 mozio onartu ziren udaletan eta kontzejuetan, eta horiei 174 alkateren eskaera gehitu zitzairen 2013an, proiektua ezeztatzeko eskatuz. Helburu hori berriro lortu zen, harik eta 2019an enpresa berak hirugarren proiektua aurkeztu zuen arte, funtsean aurrekoarekin bat datorren jarduketa eremua duena.

Bi aldiz erretiratu den proiektuaren aurkako ibilbide luze hori ezinezkoa izango zen Goi Tentsioko Linearik Ez Plataformaren bidez eragindako toki-erakundeen batasunik gabe, lan esparru ireki eta gardena baita, horizontaltasuna, zeharkakotasuna eta irizpidearen eta jardueraren independentzia ezaugarri dituen.

Mozioa onartu dugun Udaletan, 400 kV-ko Goi Tentsioko Linearen proiektuaren aurka gaude erabat. Horren bidez, Gipuzkoan Itxasoko azpiestazioa Castejón-Muruarte (Nafarroa) lerroarekin lotu nahi da. Udalerrien eginkizuna erabakigarria izan da orain arte, eta etorkizunean inplikatzeko ezinbestekoa da.

#### **Udal honek ERABAKI DU:**

Goi-tentsioko Linearik Ez Plataformari atxikitzea.

Erabaki honek **KONPROMISO** hauek dakartza berekin:

- Goi-tentsioko Linearik Ez Plataforman parte hartzea, ukitutako gainerako udalerriekin batera, iritzia emateko, eta jarraitu beharreko lan-ildoari buruzko eta elkarrekin egin beharreko jarduerari buruzko erabakiak hartzeko. Horretarako, eginkizun horietaz arduratuko den pertsona bat izendatzea, Udalaren ordezkari gisa.
- Proiektua ezeztatzeko beharrezkotzat jotzen diren ekintza guztiak egitea, eta, horretarako, dagokigun herri-ordezkaritzak ematen dizkigun toki-administrazioko baliabideak jartzea.
- Proiektuari buruzko informazioa jasotzea eta udalerriko bizilagunei helaraztea, herritarrek benetan parte har dezaten."

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Ander Figuerido Zubiria, Aitana Amondarain Esquisabel, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla

**Aurkako botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal



Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak, gehiengoz, **ez du onartu** EH BILDU udal taldeak aurkeztutako mozioa, "Goi tentsioko linearik ez" plataformari atxikitzea.

## **12.EAJ-PNV UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ENBA ETA ENHE NEKAZARIEN SINDIKATUEN "MENDIKO ABELZAINZAREN ETA OTSOAREN POPULAZIOAREN KONTROLAREN ALDEKO MOZIOA".**

Moziok honela dio:

*"2020ko otsailaren 5ean Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburuak Otsoa espezie mehatxatuen Euskal Katalogoan interes bereziko kategorian sartzeko tramitazioaren hasera onartzea erabaki zuen, Naturzaintza- Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Aholku Batzordearen gehiengoa aurka bozkatu arren.*

*2021eko otsailaren 4an Transitzio Ekologikoa eta Erronka Demografikorako ministeritzako Natura Ondarearen batzordeak, otsoa babes bereziko erregimenean dauden espezieen zerrendan sartzea erabaki zuen, otsoaren populazioaren %95a baino gehiago ordezkatzeko duten elkargo autonomoen ordezkariak aurka bozkatu arren.*

*Aurrez aipatutako Batzordearen diktamena ez loteslea bada ere, Ministeritzako arduradun nagusien hitzetan, batzordeak hartutako norabideari eutsi egingo diote azken muturreraino.*

*Erabakia behin betikoz hartuko balitz Euskadiko abelzaintza estentsiboarengan ondorioak larriak eta berehalakoak lirateke, otsoen populazioa areagotuko litzakeelako gure mugakide diren elkargo autonomoetan eta honenbestez, Euskadin otso populazioak sartu eta egonkortzeko arriskua areagotuko genuke, eta honek, ondorio larriak ditu, bai gure mendiko abelzaintza estentsiborako bai ardi latxa, babestu nahi diren mendiko larretokiak eta Idiazabal gaztarentzat.*

*Une honetan, azienda (ardiak, behiak, behorrak, pottokak, ...) mendian kudeatzen dugun abeltzainok, kezkatuta eta beldurtuta gaude otsoaren zabalkundearen aurrean orain arte bizitu dugun maneju estentsiboaren amaiera suposa dezakeelako eta honenbestez, erabakiaren azken helburua hori ez bada ere, abelzaintza estentsiboarekin amaitu eta erabateko maneju intentsibora joan beharko dugulako.*

**Honenbestez, abeltzainok ,Tolosako udalari honako hau eskatzen diogu:**



1. Tolosako Udalak bere konpromezu tinkoa agertu nahi du mendiko abeltzaintzarekin eta gure mendiak larretzen dituzten ardiak, ahuntzak, behiak eta zaldiekin. Aziendaren maneju estentsiboak, kalitatezko eta elikagai osasuntsuen ekoizpenarekin batera, ingurunearen zaintza eta kudeaketarako tresna baliagarrietarikoda delako eta honenbestez, mendiko abeltzaintzarako mehatxua den otsoaren populazioa kontrolatuko dituen neurriak eta araudiak eskatzen ditu.
2. Tolosako Udalak helaraziko dio Transitzio Ekologikoa eta Erronka Demografikorako ministeritzari, mendiko abeltzaintzaren aldeko apustua egiten duela eta honenbestez, otsoaren babesa areagotzeko erabakiaren aurka eta otsoaren populazioa kudeatu ahal izateko baliabide guztiak har ditzala kontuan, besteak beste, ehiza.
3. Udalak helaraziko dio Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailari ez dezala otsoa babes bereziko espezieen katalogoan sartu eta honekin otso populazioei sarrera eta egonkortzea erraztu. Ez dezan kolokan jarri abeltzaintza estentsiboa. Gurea bezelako lurralde txikian, mendiko abeltzaintza elkarbizi ezinezko praktika da eta otso populazioekin.”

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa eta Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe.

**Aurkako botoa** Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

**Abstentzia:** Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Ander Figuerido Zubiria, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla

Beraz, udalbatzak, gehiengoz, **onartu** du EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako mozioa: ENBA eta ENHE Nekazarien Sindikatuen "Mendiko abeltzaintzaren eta otsoaren populazioaren kontrolaren aldeko mozioa".

### **13.GALDERAK ETA ESKAERAK.**

Besterik gabe, 21:30ean, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanda.

ALKATEA  
O.e.

IDAZKARIA



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2021IPLE0004-2021-04-29 Ohiko Osoko bilkurako akta/2021-04-29 Ohiko